

# LEKEITIO

idatziak eta irudiak III

**1936-1975**



Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa

**KRESALETIK** bilduma

# LEKEITIO

idatziak eta irudiak III

**1936-1975**

Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa

# Aurkibidea



**Argitaratzailea:** LEKEITIOKO UDALA

**Egilea:** Aitor Iturbe Gabikagojeaskoa

**Marrazkiak:** Ibai Silicato eta Markues

**Maketazioa:** KIÑUKA

**ISBN:** 978-84-09-56704-1


**Lege Gordailua:** LG BI 01528-2023


<b>Antzinara begira aurrera egiteko</b>	4	<b>Turismoa I</b> , nahi eta ezin, 1950-57	146
<b>Batean bale, bestean kale</b>	6	<b>Erretaula</b> , 1951	150
<b>Saski naski</b>	8	<b>Otto eta Reginaren ezteibidaia</b> , 1951	154
<b>Lekeitioko postalak</b> , 1936-75	12	<b>BBC</b> , Bibisi, 1952	158
<b>Gerraldiko kronograma</b> , 1936-39	24	<b>Lo que el viento se llevó</b> , Zinema aretoak Lekeition, 1952	160
<b>Gerra hasi da</b> , 1936	26	<b>Lequeitio, Duo del sol y del mar frente al espacio</b> , Justa Agea, 1953	168
<b>Milicias populares baskas</b> , 1936	28	<b>NO-DO</b> , Atun txapelketa, 1953	170
<b>Itxasalde batailoia</b> , 1936-37	30	<b>Dakar eta Venezuela</b> , 1957-75	172
<b>Lekeitioko frontea</b> , 1936-37	32	<b>Lequeitio y la pesca del atún</b> , CPAL, 1958	178
<b>Gerra Lekeition</b> (En Lequeitio hay paz/ El pequeño Verdún/Errefuxiatuak), 1936-37	36	<b>Turismoa II</b> , ongotan bai, (Costa radiante/ Lequeitio enclave del turismo internacional/ Vizcaya ante el turismo/ Día del turista), 1958-69	188
<b>Gerraldiko kronikak euskaraz</b> (Ixaka, Arbintxe eta Ertze), 1936-37	45	<b>Vida Vasca</b> , 1959	208
<b>Hemerotekan</b>	53	<b>Erika Groth-Schmachtenberger</b> , 1959	210
<b>Lequeitio es ya de España</b> , 1937	54	<b>La pesca tradicional en Lequeitio</b> , Jose Miguel Ugartetxea, 1959	214
<b>Que lo sepa el mundo!</b> (Prensa frankista Donostian eta Bilbon), 1936-75	64	<b>Antiguako amaren koronazioa</b> , 1960	216
<b>Avenida del Generalísimo Franco...</b> , 1937	68	<b>Airetiko argazkiak</b> , 1960ak	224
<b>Herritik kanpo</b> (Errefuxiatu Bartzelonan/Ixaka Orue), 1937-39	70	<b>Amandarrikuak</b> , Eusebio Erkiaga, 1962	226
<b>Flechas femeninas</b> , 1938-39	74	<b>Dominique Grenier</b> , 1962-66	228
<b>Vita</b> , 1939	76	<b>Manuel Zerella erlojugilea</b> , Luis Montañés, 1963	232
<b>Errepresioa</b> , (Afectos y desafectos/Rojos separatistas), 1936-39	80	<b>Azkueren omenez</b> , 1964	236
<b>La guerra ha terminado</b> , 1939	88	<b>Joe Eiguren</b> , 1965	246
<b>Memoriak</b> , Francisco Ocamica eta Antonio Ansotegi	89	<b>Lekittoko islia</b> , 1966	248
<b>Jai-egitarauak</b> , 1939-75	94	<b>La villa de Lequeitio</b> , Francisco Ocamica, 1966	252
<b>Adreilua eta porlana</b> (Zabalguneak eta plan orokorrak/ Casas Baratas/Eraikuntzaren booma, Ikusi makusi), 1939-75	102	<b>Kanpiloko dominikak</b> (Seis siglos de aventuras, Garrastatxu, 1968/La monjas esas mujeres, 1969)	260
<b>Txaputxeruak</b> , Urtekaria, 1940	120	<b>Txikiak handi</b> , 1968-73	266
<b>Más que eso, ya haríamos nosotros</b> , Gizon probak, 1940	122	<b>Lekeitioko artxiboa</b> , 1969	274
<b>Txin-txin, txin-txin...</b> , 1940-41	126	<b>Turismoa III</b> , atezuan, 1970-75	282
<b>Goma sasoia</b> , 1943	128	<b>Zapran gagoz</b> (Elizako seilua eta Christmas-a, 1970)	284
<b>Aeroplano bat pasa-ta...</b> , 1943	130	<b>1516ko seilua</b> , 1971	286
<b>Elizarekin egin zuen topo... alkateak</b> , 1944	132	<b>Xenki eta Murgi</b> , 1972	288
<b>Gustav Brauner Lekeition</b> , c. 1945-46?	134	<b>Antzarrak</b> , 1973	290
<b>Oñatiaren mapa</b> , 1946	136	<b>Lequeitio</b> , Enciclopedia viva de los pueblos de Vizcaya, 1973	298
<b>Lequeitio histórico-monumental</b> , Juan Luis Ajubita, 1950	138	<b>Diez lustros en la villa de Lequeitio, 1925-1974</b> , Francisco Ocamica, 1975	308
<b>Lekittoko diabrutxuak</b>	142	<b>Franco ha muerto</b> , 1975	316
<b>Zerrategiak</b> , 1950	144		

# Antzinara begira aurrera egiteko

**T**empus fugit! Bape igarri barik zahartzen gara! Atzoko kontua dirudi baina badira laupabost urte *Kurik* amaitu behar zela-eta beste bilduma bat ateratzea pentsatu genuena, *Kresaletik* bilduma, eta *Lekeitio*, *idatziak eta irudiak* liburuarekin estreinatu zen. Baina liburua liburuki bihurtu zen eta lana, gustura egin arren, lan amaigabea. Hiru liburuki beranduago, Franco hil da, amaitutzat emango dut ahalegina. Inteligentzia Artifizialak, IA ahalguztidunak, egin beharko du laugarrena, nik neuk ez! IAk salbatuko gaitu!

Hirugarren sarrera da eta ez ditut esandakoak errepikatu nahi. Asmoak, ardurak etab. azalduta daude, beraz, aipatu ere ez ditut egingo. Kexak ere kanpoan utziko ditut: ez dut esango kanpoan utzi behar izan ditudala hainbat gertaera, beste batzuk ezin izan ditudala nahi beste ikertu, zorri zantarrek<sup>1</sup> loa kendu didatela... Hori bai, lagundu didatenak eskertuko ditut, horien laguntza barik ez zelako proiektu hau burutuko.

Etxekoekin hasiko naiz, zerua irabazita duzue! *On be ordenadorean aurrian...* gure etxean sarritan entzuten den kanta da. Meñakara egingo dut salto,  anaia Ibonengana. Zoratu-zoratu egiten dut, berak orraztu eta hobetu ditu irakurtzen ari zaren testuak. Asmatzeak bereak dira, HUTSAK nireak. Nire alde, kanta zaharrean islako akerra mozkortzen den antzean, ardoarekin ha, ni mozkortu, nahastu, egiten naizela ezinbestean hainbeste testu, letra familia eta abarrekin.



Zorabiatuta, zuzendutakoak berriro okertzen ditut. Noiz edo noiz eskeini dut nire erreinua zuzentzaile baten truke; ez dut ideiaz aldatu, zuzentzaile zorrotza banu behinik behin zerua lurrean izango nuke, zerua zeruan auskalo! Hurrengo jauziak Gizaburuagara narama Kiñukako Jon Josu eta Jon Iñakiren lan nekaezina bezain bikaina eskertzeko. Nekez lortuko nukeen nahi izan dudana aipatutakoen laguntza —eta pazientzia— barik.

Eskertu behar ditut baita nire lagun Markues marrazkilaria (txistelaria) eta Maite eta Iñaki kurikeruak be —titulu horrekin azalpenak soberan daude—. Isaias Gezuraga, Jose Mari Arriola eta Manu Ugartetxea ere beti daude laguntzeko prest. Ez nuen azkenengo zenbakian Iñaki Madariaga Vidal eskertu, harek egindako lana, batez ere hemerrotekakoa, primeran etorri zait.

Ale honetarako beste batzuen laguntza ere izan dut. Juan Luis Ajubitaren argazki zoragarriekin hasi behar dut; hiru baino ez dizkizuet erakutsiko, besteak hurrengo baterako gorde ditut mizkino baten antzean. Grenier familia aspaldi eskertu genuen baina ez da ezer pasaten, *merci* berriro! Saavedra Ordorika familiak *Vita* ontziaren gaineko dokumentu eta argazkiak utzi dizkigu. Eskerrik beroenak Maiteri eta muxu handi bat ama Nileri.


Amaitu aurretik, aurreko udalbatzak eskertu behar ditut *Kresaletik* bilduma honi babes ematearren, eta zoriondu eta zorzea opa berriari.

Bi urte geratzen zaizkigu 700. urteurrena ospatzeko, egin geinke! **Yes, we can!**



*Ilobei, Ruben, Maia, Ekain eta Aroari*

<sup>1</sup> Iñaki Goioganaren XXS orraziak ere ezin du akabatu horiek! Salomon eredu, XX. mendeko gaztelaniazko testuen ortografia zuzendu dut, tilde kontua izan da batik bat eta aurreko mendeetakoak bakean utzi ditut.



*En Lequeitio...*



PENSION. - RESTAURANTE. - BAR. - SALON DE TE  
 Man Spricht Deutsch  
 On Parle Français  
 English Spoken  
 Ambiente Familiar, Cocina Española y Francesa  
 Degustacion de Langostas a cada Hora

*Cosmopolita*

Avenida del Generalísimo Franco, 4. Teléfono, 145. LEQUEITIO



## Playas de Lequeitio;

las más bellas del Cantábrico, sus aguas limpias, su arena suave hacen de ellas las más concurridas.

OCR

OCR

OCR

OCR

# Batean bale, bestean kale

**O**fizio honetan hutsegiteak aitortzea eta batez ere konpontzea, aukera izanez gero behintzat, ezinbestekoa da, zuzendu ezean Sarean betirako irauten baitute, *ad infinitum*. Hutsegite txikitxoak, gogaitu arren, beste kontu bat dira, estetika kontua; zuzentzaile zorrotza edo harako-harako hutsen zerrenda (*fe de erratas*) bagenu konponduta.

Hutsegite potoloekin berriz, —jakina, atzemanaz gero— akabatu egin behar da, errukirik gabe, su eta gar.



Santa Katalinako ermita.  
"Le grand Routier", Pierre Garcie-Ferrande, 1520

mendixka da. Are txarrago, ababor eta istribor nahastu nituen, arbasoek entzun izan balute, hauxe da ridikulua! Gidatxo honetan aitzitxa makurrari buruz esan nuena ere Lekeitio ezagutzen bildumako *Lekittoko isla* "eskuorrian" hobetu egin dut. Zuzendu, aldatu, hobetu, horixe da egin behar dena.

## HOBETZEAK

Oraintsu jakin dut, Isaias Gezuragari esker, Manuel Garavilla aita, argazkilari profesionala izan zela sasoi batez Haroko herrian. Banekien kontserbagileak zirela eta, argazkiak ederrak izan arren, uste nuen ez zirela argazkilari profesionalak. Ba, aitarekin ez nenbilen zuzen. "Anuario del Comercio, de la industria, de la magistratura y de la administración" urtekarian agertzen da 1882 eta 84 artean eta argazkilaria da Haron.

Beste argazkilari baten berri ere banuen, F. Zabala, baina aipatu baino ez nuen egin. Orain zertxobait gehiago dakit. 1888ko urtekari batean (Anuario del Comercio, de la industria...) zera zioen Lekeitiori zegokion atalean:



Mariano Adan de Yarza



Errepublikara garaiako Udalbatza. Mariano Adan de Yarza alkate, Isaac Orue alkateorde

## HUTSAK

*Lekeitio idatziak eta irudiak 1325-1884*ko azken orrialdean Pierre Garcie-Ferrande-n *Le grand Routier* itsasbideko Santa Katalina ermita erakutsi nuen pentsaturik, ez dut gezurrik esango, erratuta zebilela eta Lekeitioko San Nikolas ermita zela. Hori uste nuen "Le Grand Routier de Pierre Garcie dit Ferrand", Michel Bocacha eta Laurence Moalek zuzendutako eta 2019an argitaratutako liburua irakurri arte. Antza denez, Santa Katalinako ermita da bai, baina Debakoa.

*Lekeitio, idatziak eta irudiak, 1884-1936*ko 11. orrialdean Mariano Adan de Yarza alkatearen argazkia ageri da, baina ez da Mariano, Isaac Orue baino. Zer dela eta erratu nintzen? Ba, Paskual Abaroaren monumentua inauguratu zen egunean orduko alkatea Mariano Adan de Yarza, Orue alkateordeak ordezkatu zuelako. Ez nekien, ez nintzen zuhurra izan.

*Lekeitio, arkitektura gida* liburutxoan ere estropezuren bat izan nuen. Erdiko planoaren 7. geraldian Fabian Uribarrenren jauregia zela nioen. Lehen abizena jan nion, Fabian Abaroa Uribarren zen. Esaten nuen baita Donostiako Santa Klara irla ikusten zela Lekeitiotik, eta antza denez, Urgull



*Fotografo. -ZABALA (Florencio B.) representante de este ANUARIO. Se venden vistas de los principales puntos de Vizcaya y demás provincias de España sueltas y en colección en todos tamaños. Se remiten por Correo.*

Aurreko liburukian erakutsi nituen Lekeitioko bisita zahar batzuk, portu berria egin aurrekoak, baina anonimoak ziren. Gaur bat behintzat badakit nork atera zuen, Florenciok. Eta beste guztiak ere bereak balira? Ez da hipotesi txarra, kontuz! Eta zelan dakit Florencioren argazkia dela? Ba erraz, Ajobitak utzi dizkigun kliseen artean agertu zaigulako autorearen izena, Florencio B. Zabala.

Florencio B (Benigno) lekeitiarra zen, Bartolome Zabala eta Encarnación Garavillaren semea, 1858an jaioa zen. Garavillatarra zen beraz, Manuel Garavillaren odoleko lehengusua. Manuel 6 bat urte zaharra goa zen, maisu eta ikasle?

## ASMATZEAK

*Lekeitio, idatziak eta irudiak, 1884-1936. Singerren bigotia.* 146. or.

Enrique Garcíaren, Singer, karikaturatzaletan genuena zalantzan jarri nuen orduan eta gaur badakit ez dela Singer karikatura horretan ageri dena. Zer nioen artikulua horretan? Labur-labur, karikatura hori, Navarrete karikaturistak sinatua 1912an, Argentinan zegoen Federico Perea Iturrioz aulestiarrak bidali zela ilobei. Ilobetariko bat Aureliana Arteagabeitia Perea, Juan García Etxebarrietarekin ezkondu zela, Enrique Garcíaren ilobarekin, eta haren familiak "betidanik" pentsatu izan duela Singerren karikatura dela. Baina usteak erdia ustel!

Eta zer aurkitu dut? Kasualitate hutsez, zorte apur bat ere behar da, "Aulesti, 130 urte kiñu baten" liburuari gainbegirada ematen ari nintzela 74. orrialdean *Euzkadi* egunkarian 1921-9-21ean agertutako *Deun Eufeme jaiak* kronika berreskuratuan, ezaguna iruditu zitzaidan "morroi" bat ikusi nuen, karikaturan ageri zen pertsona igual-iguala. Federika Perea aulestierra zen Buenos Airesetik etorri berria. Ez daukat dudarik, Federika da karikaturan agertzen dena eta ez diot harrokeriaz, egia ezagutzeko baino. Baina badakit nik idatzitako honek ez duela askorengan eraginik izango. Zenbat bider entzun dudatan Ateko gurutzetara Yarzatar gaizto batek gizarajo bat erahil zuelako eraiki zela, *neuri esangonazu*. Horregatik, hain zuzen ere, ezin gara deskuidatu, gure deskuiduek betirako iraun dezaket eta.

Propina modura uzten dizuet udalbatza biren data zehatzak (ikus *Lekeitio, idatziak eta irudiak II*, 18.or): 1907-3-22koa da bata (Bruno Larrazabal alkate) eta 1914-4-9koa bestea (Manuel Garavilla alkate).



Manuel Garavillaren argazkia



Florencio Zabalaren argazkia



Federico Perea



Federico Pereaen karikatura (Singerrekin batera)

1921eko jaietan, Argentinatik etorritako Federico Perea izan zen protagonista. Kronikan jartzen dabenez negozioak direla-ta alabagaz etorri zan. Federikok, dirua egin eban Buenos Airesen eta Larra hotelaren ugazaba zan eta hango euskal komunitateko pertsona inportantea. 1905ean, Buenos Airesko euskal etxearen sortzaileetako izan zan.



Joseba Astegiaren marrazkia

# Saski Naski

**E**z da erraza izan liburuki hau eta aurrekoa egitea, batez ere, aukeratu egin behar izan ditudalako gertaerak eta gaiak; eta batzuk aukeratzean gainontzekoak baztertu. 316 orrialde, asko izanda ere, gutxi dira! Nire pena horixe da, esan gabe utziko ditudala hainbat gai.

Alabaina saski-naski atal honi esker kondenatu batzuk salbatuko ditut, behintzat aipamenentxoak izango dute. Hori bai, *totum revolutum*.

Gerra eta gerraostea gogorak izan ziren, artista barik geratu ginen: Julian Tellaetxe eta Julian Ibañez de Aldekoa atzerriratu egin ziren eta Angel Garavilla Bartzelonara joan zen. Ez zuten ondorengorik utzi. Kanpokoak erakartzeko ere ez ginen gauza: Pérez Castro, Haes, Rivera edota Sorollaren tamainako artistak Lekeitiara etortzen ziren garaiek ez ziren bueltatuko. Baina geure "artista(txoak)" genituen, esaterako Joseba Astegia, Periko Astegiaren semea. Horren kuadrila-marrazkiak, karikaturak hobe esan, sasoi batean modan egon ziren.

Frankismo garaia islatzen duten hiru momentu edota gertaera aukeratu ditut: (1938-10-1), Bilbon urriaren 1ean dantzatu zen Kaxarranka Franco estatu buru izendatu zen eguna gogoratu eta ospatzeko; (1965-8-27), Don Juan, emeritoaren aita, Lekeitiara Giralda yatean etorri zen eguna, besteak beste Santi jatetxean bapo-bapo bazkaltzera eta (1968-5-5), Manuel Fraga, orduan Turismo ministroa, Lekeitiara etorri zen eguna. Ez zena sekula etorri Franco izan zen, emaztea, Pilar, berriz bai (1958 eta 1961ean esaterako).

Baina bazegoen diktadura bete-betean, 1960an, Lekeitioko Amaren koronazio egunean, paskinak banatzen zituenik ere, *Ez dogu nai erderarik/ Euzkera dogu naiko...*

60. hamarkadakoak dira euskal berpizkunde kulturalaren lehen urratsak Lekeition (64an ikastola, urte berean Azkueren omenaldia (horren barruan euskara katedraren ofizialtzea eta euskal ezkontza), 66an bertsolari txapelketa (Bizkaiko txapelketako finalerdia), 67an gerra osteko lehen

jai-programa elebiduna...). Itxas-Soinua abesbatza 1972an sortu zen eta urte oparoak izan zituen..., han ibili nintzen ni neu ere, ez dakit kantatzen ala desafinatzen.

Kirolzaleek ez didate barkatuko, kanpoan utzi ditut orduko izarrak. Gabika txirrindularia ez zela lekeitiarra argudia dezaket baina Mendieta eta Gallastegirekin ez dit balio aitzakiak.

Bitxikeria batzuk ere salbatu nahi izan ditut.

1947an *Las inquietudes de Shanti Andia* pelikulak Lekeitio erakutsi zuen baina ez zen bertan filmatutako pelikula bakarra izan. 1957an *Y eligió el infierno* pelikulak Lekeitio Alemaniako herri bihurtu zuen. Ez ziren film txarrak, ez bata ez bestea.

Hor agertzen den barraka ere ez da makala, orduko Dragon Khan. Ez nintzateke hara gora igoko! Noizkoa ote da? 50eko hamarraldi amaierakoa?

Nazioarteko politikak ere arduratzen gintuen. Lekeitioko artxiboan, kontu artean, edozer ager daiteke, esaterako John Fitzgerald Kennedyren alde ateratako hileta-mezaren faktura, (1963). Harrigarria! Zer izan zen haren erahilketa... *Primera extra*-ko hileta egin zitzaion, non eta Lekeition, 900 pezetakoa!

Estatu Batuetatik dator Ripleyren *Believe it or not* ere (1961). Guinness Records-en antzean, gauza harrigarri eta bitxiez arduratzen zen —eta da—, baina nola sinetsiko ditugu han esandakoak kaxarrankari buruz esaten duena irakurri eta gero!


### The dance that covers 3 miles!

A fisherman in the village of Lekeitio, Spain, as a ceremony to assure prosperous fishing has danced on a wooden chest carried by 6 men each June 29th for the past 300 years. If the dancer rests before the chest has been carried 3 miles he must be dumped into the sea.

No comment! (Ipar) Amerikarrek dena bihurtzen dute espektakulu!





Kaxarranka Bilbon, 1938-10-1



Don Juan de Borbón y Battenberg Lekeition, 1965-8-27/El Correo Español, 1965-8-29



Fraga Iribarne ministroa Lekeition, 1968-5-5



Antiguako Amaren koronazio egunerako prestatutako paskina, 1960

Itxas-Soinua abesbatza, El Correo Español, 1973-5-10

**PELOTA**  
**Mendieta, el valiente**  
 Hoy se mide en el Deportivo con su paisano Acarregui

**En el Euskalduna, mucha leña**

Habrà que irse haciendo a los jueves de moda si la Empresa explotadora del bonito frontón del Club Deportivo suma sus organizaciones a los programas especiales que para estos días ofrece siempre el Euskalduna.

Por de pronto, esta tarde vuelven a reñir en la "catedral" Begofés VII y Amorebieta IV, emparejados con Aguirrebengoa y




Mendieta pilotaría, El Correo Español, 1953-12-17

Esta tarde se le exige menos... y más. Menos, porque tiene un zaguero que le respalda. Más, porque tiene enfrente a un "experto" de calidad como José Luis Acarregui, que ha evidenciado su puesta a punto al ganar brillantemente el torneo de delanteros, dentro del cuatro y medio.

Y cuando se llega a percibir un billete de los grandes por cada partido, bien merece la pena entregarse de lleno a perfeccionarse en la profesión, para alcanzar la cotización.

**ESPAÑOL**  
**DEPORTES**  
**ANQUETIL-RUDI AL**



"Espainiako itzulia" portuko adokinak probatzen/El Correo Español, 1962-5-18

AYGOES, nuestro fotógrafo, enviado especial a la Vuelta 62, inauguró ayer una extraordinaria Exposición de sus 7 Club Deportivo, que puede visitarse libremente por todos cuantos quieran admirar las más bellas escenas de la ronda. En ellas, el paisaje juega un especial papel de protagonista. Y por eso no nos resistimos a reproducir hoy en nuestra deportiva esta magnífica estampa de LEKEITIO, donde los ciclistas tuvieron, con la misma perfecta organización, de Actualamiento. Por ello nuevamente Lequeitio ofreció al fotógrafo AYGOES la posibilidad de lograr esta magnífica estampa turístico-deportiva. En el Club Deportivo pueden ver y admirar muchas más...




1946ko pelota finala Atano III. Akarregiren kontra. Epaiile Gallastegi



Lekeitioko orduko Dragon Khan



"Y eligió el infierno" pelikularen fotograma, 1957



Kennedy presidentearen aldeko hileta meza faktura, LUA/Udal Kontuak, 1963



Ripley's Believe or not (Kaxarranka), 1961?

# 1936-75

## Lekeitioko postalak

**E**z dago besterikan *taberniaa baino...* Tabernak, eta postalak gehituko nuke, herri turistiko guztien antzean. Ehundaka, milaka postal heldu zaizkigu baina (bainak ortuan esaten genuen gaztetan) ikerketak zero. Horregatik, aurreko liburukian legez, oinarrizko eta behin behineko sailkapena egin dut, aurrerago, hobetu beharko dena. Ez dago, hasiera batean behintzat, gerra aurreko eta gerraosteko postalen artean alde handirik harik eta 50eko hamarraldi amaieran kolorea "asmatu" zen arte. Datatzeko orduan, berriz, nobedade garrantzitsu bat agertu zen 1957a amaitzear (abenduen 23an, hain zuzen, baina 1958-1-20an argitaratu zen BOE-an). Aurrerantzean postalek edizio urtea agertu behar izan zuten (zenbaki arabiar edo erromatarrez). Denok ulertzeko, 1958ko postalak, 1958 edo I zenbaki erromatarra erabiliz, eta horrela gainerakoak. Burukomin bat gutxiago!

Sasoi horretan, 1950eko hamarraldi amaieran, benetako kolorezko postalak agertu ziren, koloreztatuak baztertuz eta horien lekua hartuz. Horretarako *offset* eta kuartikomia teknikak erabili ziren; postalen tamaina ere aldatu eta uniformizatu

egin zen, 10 X 15 zm-ra arte handituz. Zelan ez, postal berrien hedapena turismoaren gorakadarekin lotuta egon zen. Turismo boom honek postal booma eragin zuen, duda barik.

Datatzeko orduan lantzean behin zalantzak izan ditut, batak bat Roisin eta Madyma etxeen postalekin, ez baita erraza bereiztea Errepublikara garaikoak ala gerra ondorengoak diren. 1958tik aurrera, berriz, ez dut arazorik izan aipatutako dekretuari esker.

Argazkilariei dagokienez ezer gutxi dakigu. García Garrabellatarrak argazkilariak ziren eta onak gainera, baina zelan ziurtatu eurak izan zirela Lekeitioko postalon egileak? Claretren postalek, berriz, ez dute edo ez litzukete zalantzarik sortu beharko.

Errazago izan da editorialak identifikatzea baina ez horrenbeste editorialei buruzko informazioa aurkitzea, gehienak enpresa txikiak izan zirelako eta handiak ere gutxi ikertu direlako. Postala argazkilaritzako ahatetxo itsusia izan da!

Hogei bat editore aurkitu ditut —eta editorial gabeko bat edo bat ere bai— baina bakar batzuetan baino ez dut jarriko arreta.



931. Lekeitio. Vista general. Ed. Arribas- Zaragoza

### ARRIBAS EDITORIALA

Manuel Arribasek fundatu zuen 1905ean Zaragozan eta Arribastar hiru belaunaldik zuzendu zuten 1992an zarratu arte. Enpresa inportantea izan zen, ikusi baino ez dago Lekeitioko zenbat postal argitaratu zituen. Irakurri dut, irakurri dut idazten dudanean ziurregi ez nagoen seinale izaten da, tokian tokiko argazkilariei erosten zizkietela negatiboak gero eurak postal bihurtzeko. Lekeitioko postalak ere bertoko argazkilarienak ote ziren? Kontuak kontu postal sorta dezentea heldu zaigu (batzuk haizeak eraman ditu, noski), zuri-beltzezkoak, koloreztatuak eta koloredunak. Arribas etxeko postalekin zortea izan dut hainbat negatibo (klixex) erabili ahal izan ditudalako *Todo colección* webgunean erositakoak (postal zaleon poltsikotik ordainduak).



Nik erosi nuenean *Arribas* etxekoa zela esan zidaten (Cliche original - Lekeitio, negativo en celuloide - Ediciones Arribas) baina *Garrabella* etxeko postalen artean aurkitzen da (11. Lekeitio (Vizcaya). El puerto visto desde el Parque. Ed. García Garrabella y Compañía-Zaragoza. Zeinena ote da?



1355. Lekeitio. Playa. Ed. García Garrabella

### GARCÍA GARRABELLA

Enpresa hau ere Zaragozan sortu zen gerraostean, postalen gunerik nagusiena baitzen orduan Zaragoza. Luis García Garrabella (1906-1977) argazkilaria zen eta ofizioa Arribastarrekin ikasi zuen. 1939an anaia Joserekin batera enpresa propioa fundatu zuen. Postal ugari heldu zaigu, Arribas editorialaren antzean, enpresa handienetakoa zen seinale.

### MANIPEL

Enpresa hau José García Garrabella (1898-1974) argazkilaria fundatu zuen Donostian baina ez dakit ez noiz ez zergatik, Zaragozan beste enpresa hori izanda. Badakigu 1940ko hamarkadan Donostian erroldatuta zegoela eta argazkiak eta postalak argitaratzen zituela. Bien bitartean anaia Luis ere gauza bera egiten ari zen baina Zaragozan.

Heldu zaizkigun postalak zuri-beltzezkoak dira eta baliteke garai bitakoak izatea, erregistro zenbakia aurrean dutenak (badago bat Uribarren jauregia erre aurrekoa) seguruenik zaharragoak eta atzean dutenak oraintsuagokoak. Hona erregistro zenbakia: 142205.



Lekeitio. Vista desde la isla. Ed. Manipel







1. Lekeitio. Vista general. Ed. Barcena



6. Lekeitio. Muelle del Contraamaestre Chacho. Ed. García Garrabella y Compañía- Zaragoza



1. Lekeitio. Vista general. Ed. Barcena (1958an zirk.)



41. Lekeitio. Vista general. Ed. Arribas- Zaragoza



Lekeitio. Iglesia y plaza. Ed. Manipel, Rtro nº 142205



4. Lekeitio. Basílica de Santa María. Ed. Ed. García Garrabella y Compañía- Zaragoza



14. Lekeitio. Muelle. Ed. García Garrabella y Compañía- Zaragoza




1358. Lekeitio. Detalle del Puerto y monte del Calvario. Ed. García Garrabella



El Puerto. Ed/arg. J. García (Garrabella)- San Sebastián (1951an zirkulatua)



25. Lekeitio. Paseo a la playa y costa. Ed. Arribas- Zaragoza (1959an zirk.)




15. Lekeitio. Vista del puerto. Ed. García Garrabella- Zaragoza



8. Lekeitio. Vista parcial. Ed. Comercial Paredes- Bilbao. 312914 (1963an argitaratua)



Parador Nacional La Emperatriz. Lekeitio Serie BS, nº 2.  
Ed. Dirección general de empresas y actividades turísticas (Fisa, 1971an arg.)




32. Lekeitio. Vistas parciales. Ed. Dominguez- Madrid (Fisa, 1974an arg.)



13. Lekeitio. Vista marítima. Ed. García Garrabella (1968an arg.)




6.204. Lekeitio. Vista del puerto. Ed. Pergamino (1966an arg.)



93 Lekeitio. Iglesia parroquial de Santa María.  
Ed. Dominguez- Madrid (Fisa, 1970ean arg.)



21. Lekeitio. Ed. Foto Gar- Zarauz (1974an arg.)



7. Lekeitio. Calle típica.  
Ed. Postal Internacional Burgos (Finier) (1968an arg.)



372. Lekeitio. Vista aérea. Ed. Alarde- Oviedo (Foto Paisajes Españoles, 1965ean arg.)



187. Lekeitio. Vista aérea. Ed. Oyarzabal Mateo- Bilbao (1969an arg.)



54. Lekeitio. Prueba del ganso. Ed. San Cayetano- Bilbao (1975ean arg.)



66. Lekeitio. Vista aérea. Ed. Exclusivas San Cayetano- Bilbao (1975ean arg.)




Jai programa, 1943



Jai programa, 1945



Lekeitio (Vizcaya). Plaza. Ed. Fotos Claret



Lekeitio. Isla y entrada al puerto. Ed. Fotos Claret



Lekeitio. Basílica. Ed. Fotos Claret



Lekeitio. Fiesta del ganso en el puerto. Ed. Fotos Claret- Lekeitio



Lekeitio. Foto Claret

Bilduma pribatuak



Lekeitio (Vizcaya). Vista general. Ed. Fotos Claret



Lekeitio. Detalle del puerto. Ed. Fotos Claret



Matrikula 1957koa da eta Cosmopolita restaurantea 1959an zarratu zen. Noizkoa ote da argazkia?

# 1936-39

## Gerra Zibila

### Gerra hasi


1936-7-18

Milicias populares baskas

Lekeitioko frontea (Asterrikan)  
Itxasalde batailoia sortu  
Errefuxiatuz bete Lekeitio

Erreketeta falangisten lehen  
erasoa, Ondarroa hartu eta  
Lekeitioko frontea "estreinatu",  
1936-10-4

Lehen bonbardaketak Lekeition, 4  
hildako, 1936-10-22  
Bonbardaketak, 1936-10-  
23/25/26/29



Errefuxiatu gehiago Lekeitiora

1937ko otsaila/martxoa

Lekeitio ebakuatu

1937-4-27

Lekeitio jausi

1937-4-28

Avenida del Generalísimo Franco

1937-5-18

Paskual Abaroaren idazkuna  
erdaratu/ kaleen izenak aldatu

1937-7-14

I Flecha kanpamendua

1938ko uda




1936ko iraila

Donostia jausi 1936-9-13

1936ko urria

Lehen euskal estatutua, 1936-10-1  
Lehen euskal gobernua; lehendakari  
Jose Antonio Agirre, 1936-10-7



1937-4-26

Gernika bonbardeatu

1937-6-19

Bilbo jausi

1937-8-24

Santoñako tratua

1939-1-26

Bartzelona jausi

1939-3-28

Madril jausi

1939-4-1

Gerra amaitu

# GERRA HASI DA

## 1936ko uztailaren 18an

hasiko da gerra Espainian. Egunkariak irakurriz gero, matxinada kontrolpean zegoela dirudi, hasieran behintzat. 19an Gobernuak matxinatuek aldarrikatutako gerra-egoeraren deklarazioa baliogabetu zuen, Espainia ez zegoen gerran! Baina ordurako berandu(egi) zen!

Altxamendua gutxietsi zela? Baliteke, harritzekoa baita Errepublikako agintarien "epeltasuna". Konfidantza larregi? Estrategia hutsegitea? *Ikusi eta gero, denak jakintsu*. Jakin, bazekiten kolpistak konspiratzen zebiltzala baina orduko presidentek, Casares Quirogak, ez zuen neurrik hartu, ez behintzat nahikorik edo egokirik<sup>2</sup>. 17an Melillan eta 18an Sevillan altxatu ziren errebeldeak, ondoren Espainian zehar zabaldu zen errebolta. Kolpe militarrek ez zuen arrakastarik izan baina Errepublikak ere ezin izan zuen errebeldeekin akabatu, beraz gerra luze eta odoltsua has-tear zegoen. Gerra ondorengo gerraostea ere ez zen, ez, gozoa izan! Su eta gar menderatu zuten tropa frankistek agintea, beste 40 urte gehiago luzatuko zela erregimen hura ez zegoen inoren kalkuluetan. Lekeitiok nola bizi izan zuen garai hori saiatuko naiz zuongana hurbiltzen.

1 Antzeko zerbait gertatu zen 1868an La Gloriosa iraultza garaian. Orduan ere, agintariak bazekiten zertan zebiltzan Prim eta enparauak, konspirazioaren jakinean zeuden baina ez ziren ekiditeko gai izan. Gauzaeza, ezintasuna..., halabeharria esango lukete batzuk, nork daki!

2 Ezaguna da, baina horrek ez du egia bihurtzen, Casaresek kazetariari uztailaren 17ko gauean erantzundakoa militarrek altxatu ziren berri eman ziotenean:

«¿Así que los militares se han levantado en Marruecos? Pues yo me voy a dormir».

Esan bazuen ere, eta ez dut uste, jendea lasaitzeko esango zuen, ondotxu baitzekien egoera larria zela edo izan zitekeela. Casaresek ez zuen gau hartan ez hurrengoan lorik egin. Biharamunean, 18an, dimititu zuen, matxinadak Afrikatik penintsulara salto egin zuen egunean.

# EUZKADI EN ARMAS

## ¿Por qué lucha?

Por la civilización cristiana.

Por la justicia social.

Por la libertad patria.



Euzkadi, 1936-7-21

Euzkadi, 1936-7-19

# MILICIAS POPULARES BASKAS

## IRAKUŪRI GUDARI

REVISTA GRÁFICA  
SEMANTAL  
DE EUZKO GUDAROTZTEA

### AL COMITÉ DE DEFENSA DE LA REPÚBLICA DE LEKEITIO

Como Jefe de las MILICIAS POPULARES BASKAS de la Zona de Lekeitio, ofrezco los servicios de estas Milicias a ese Comité, al cual estamos dispuestos a defenderle siempre que para ello se nos requiera, poniendo a disposición del mismo (40) cuarenta hombres decididos y disciplinados, los cuales están dispuestos a hacer las guardias y servicios sin percibir remuneración de ninguna clase en metálico, alimento o bebidas.

Para tratar de esta cuestión, autorizo al Jefe y Subjefe de las MILICIAS POPULARES BASKAS de esta Villa Miguel Garavilla y Raimundo Gamboa respectivamente para que puedan Uds. dirigirse y tratar con todo lo relacionado a lo que se indica en este escrito.

Lekeitio, 18 de Agosto de 1936  
EL JEFE DE LAS MILICIAS BASKAS DE LA ZONA DE LEKEITIO  
Victor Erkiaga

### LEKEITIO

Las graves circunstancias actuales obligan al Partido Nacionalista Vasco, y por tanto a su Junta Municipal de Lekeitio, a la creación de "Euzko Gudaritza" (Milicias Vascas) destinada para la defensa de los sagrados postulados " CIVILIZACION CRISTIANA, JUSTICIA SOCIAL y LIBERTAD VASCA", con la defensa y garantía del Orden en general.

Para ello es todo punto necesario, realizar gastos de alguna consideración y no contando este partido Nacionalista Vasco con medios suficientes para sufragarlos, recurre a V. rogándole preste toda la atención que el excepcional caso requiere, y se inscriba con la cantidad que estime conveniente a esta suscripción.

Por interés propio, y en el de este nuestro querido pueblo y País Vasco en general, esperan su eficaz ayuda de la que le quedan agradecidas esta "JUNTA MUNICIPAL" y "MILICIAS VASCAS".


Lekeitio 12 de agosto de 1936  
Por la Junta municipal de las Milicias Vascas  
Nota: Una Comisión pasará a domicilio a efectos de esta circular

Concedidas 500 pesetas en sesión de 23 agosto de 1936  
El Secretario  
Antonio Martínez



Lekeitioko Udal Artxiboa (LUA)

LUA 444/3



LUA 444/3



# ITXASALDE BATAILOIA

Posicion de San Pedro



Itxasalde batailoko Boga-Boga konpainia Orduñako San Pedro mendian, 1936-12-15. Sabino Arana Fundazioa

Uztaileko altxamenduari gerrak jarraitu zion. Euzko Alderdi Jeltzalea (baita ANV eta beste batzuk ere) leial mantendu zen, sirena hotsak baztertuz, eta Kristau zibilizazioa, Justizia soziala eta Euskal libertatea (Civilización cristiana, Justicia social y Libertad vasca) defendatzeko prestatu zen.

Horretarako Lekeition EAJ-k abuztuan Euzko Gudaritza sortu zuen (Milicias Populares Baskas). Berrogei bat lagun ez osatua, Comité de Defensa delakoaren zerbitzura jarri ziren guardiak eta bestelakoak egiteko prest. Buru ziren Victor Erkiaga, Miguel Garavilla eta Raimundo Gamboa.

Gerra aurrera, Itxasalde batailoia sortu zen 1936ko irailean. Itxasalde izena hartu zuen, hain zuzen ere, kostaldeko gazteek osatu zutelako, besteak beste, Lekeitioko Euzko Gudaritzakoek. Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka eta Bermeoko euzkoek sortutako batailoia izan zen, Euzkadiko ejerzitoaren 13.a.

Komandantea Victor Erkiaga<sup>1</sup> izan zen, intendentea Andres Ordorika eta kapitainak Etxaniz, Leizea, Zabarte, Ordorika eta Zumaga, bitartekari (enlace) atala Salinas tenienteak zeraman. 500-600 gizonek osatutako batailoia, 5 konpainia: Matxixako, Boga-boga, Telleria, Matxin eta Gaztelugatxe (metrailadoreak).

Irailean Asterrikako frontean egon ziren baina hurrengo hileetan han eta hemen ibili ziren (Elgeta eta Kanpazar, Asterrika, Orduña, Legutio, Baranbio, Laudio, Elorrio, Bermeo, Baranbio berriro?, Artxanda...). 1937ko ekainean Jesus Maria Leizaolak Bilbon ordena publikoaz arduratzeko agindu zien frankistak iritsi arte. Lana bete ondoren, ekainaren 19an errenditu egin ziren.

1936-11-18an Itxasalde batailoari Lekeition ikurrina oparitu zioten; IXAKA Azpiazu izan zen testigu eta 1936-11-22ko Euzkadi egunkarian argitaratu zen haren kronika.

<sup>1</sup> inf. Victor Erkiagari Carlos Blascok egindako elkarrizketa Dokukliken. Euskadiko Artxibo Historikoa, Carlos Blasco Olaetxea funtsa, C03/10

“Itxaxo-alde” taldeari ikurriña opari diote, Lekeitio'n

Ez giñenkigun ezer, ba. Eta orra aldi eder baten ikusmirau.. Azte azken goizean, amaika ta erdiak ingurua izango zan. Egazkiñak “bermout”a eman oi duen garaia zala, giñon alkarri, Lekeitio ontako enparantzan eguzki goxoa artuaz giñan lagunak e! “Altzeta”!

Ontan, zerbait gertatzen zala eta... “bra, bra, bra” gudari taldearen oin otza.

Errezkadan, enparantza erdian, “alto” egin zuten.

Zer ote dago? galdetu giñau alkarri.

Gure artekoak ez jakin giñan.

Onetan, azaldu zan ikurrin bat, ederra, euzko-Jel-ikurriña. Apaiz jaun agurgarria, Lekeitio'ko “Bikario”a aurreratu eta onespendu zuan ikurriña. Gero andereñoak eskiñi zioten taldearen gudalburuari. Onek, ikurrin-eramalearen ezkuetan jarri zuan eta taldea ikurriñaren agurpena egiñik, irunako errezkadan bere aurretik igaro zan

Jel ikurriña zutik ¡gora Euzkadi! oyua zutsuak ziran. Txaloak ugari. Nola ez ba, Lekeitiarrak txalotu anai taldeari.

Ikusgai au ikusita, zerbait jakin zale galdetu genuan. Baita zerbait jakin ere.

“Itxas-alde gudari taldea zala au ikusi genduana. Geienak lekeitiarrak omen dira eta gudaburu baita ere Lekeitio'ko semea Ordorika'tar Ander.



Gudari aldzakaria, 1937-3-27. Lekeitiarrak taratean. Miguel Garavilla kapitaina makurtuta eta Victor Erkiaga komandantea zutik.

Ikurrin ederra, Lekeitio'ko erri abertzalearen izenean eskiñi ziotela. Uri Buru Batzarreko agintariak aurrez zirala, E. A. B.'ko lendakari dan Elordi'tar andereñoak Erkiaga'tar andereñoa lagun zuala.

Ara emen goiz artako aldi ona, eta nere “kurioidadeak” jakin duana.

Abertzale egintza danez eta, nere zorion eta txalorik beroena U. B. B.'ar E. A. B. eta andereñoai, baita “Itxas-alde” gudari taldeari.

Eta zuek “Itxas-alde”ko gudari taldeko bulartsuok, entzun:

Lekeitio'ko enparantzan dezuten Udal etxeko ikuskiaren idazkian itz auek azaltzen dira: “Reges debellant” “Errege bakaldunak”, oinperatu zituan Lekeitio'k. Ara zuen egin bearraren deia. Zuen aurrekoak, erriaren izen ona, oinperatu naian zetozten bakaldunak birrinduaz gorde zuten. Zuek Lekeitio'ko gudari “Itxas-alde” taldeko bulartsuok, Jel ikurriña goi-goian ipiñita, gogor, indartsu zuen asabaen antzera, erriaren izen onagatik, errege zaleak “pazistak” menperatu, birrindu eta zuen erriaren eta Euzkadi'ren aintza izan bear dezute.

Zuen erriko ikuskiaren idazkia, len baño ere izki aundiagoaz idatzi dezatela; Lekeitio'ko erriaren aintza, zuen egintzak jaso dezatela.

Aurrera, “Itxas-alde” taldea. Gora JEL ikurriña! ¡Gora Euzkadi Azkatuta!

IXAKA

(Lekeitio'tik)

EUZKADI, 1936-11-22



NÓMINA del Batallón "ITXAS-ALDE"							ORDAIÑA	
Controlado por el P. N. V.							Noren-menpean	
Periodo de la primera quincena del mes de Febrero							Noizkoa	
N.º de orden	CLASES DEBILITACION	NOMBRES IZEN-ABIXENAK	N.º de la ficha Esasdi zenbakia	Dias Egunak	Haber por dia Egunkako ordailua Puntus Cs.	TOTAL GASTIRA Puntus Cs.	Fondo Vasco. Ejercito vasco. N.º de batallones. Caja 19, Expte.1	
<b>PLANA MAYOR</b>								
1	Comandante	Victor de Erkiaga Alastre	40-600			312,50		
2	Intendente	Andrés de Ordorika Asua	29-460			312,50		
3	Teniente Ayudante	Koldobika de Iturbe Añola	20-906			200,00		
4	Suboficial	José Ramón de Ufusia Sagadi	34-766			200,00		
5		Alejandro de Urkidi Olara	47-376			167,50		
<b>SECCION DE ENLACES</b>								
1	Teniente y enlace	Juan Salinas Gaminda				250,00		
2	Sargento	Berbis de Landa				180,00		
3	Cabo	Felix Sabala				165,00		

# LEKEITIOKO FRONTEA

Errebeldeak/nazionalak gerra hasi eta batera nagusitu ziren Nafarroan eta Araban, Gipuzkoan, ordea, saiakerak huts egin zuen eta Bizkaian horixe ere ez. Baina bi hilabete besterik ez zuten behar izan Gipuzkoa hartzeko, paseo militarra bihurtu zen kanpaina lehen hile hauetan Errepublikan ez baitzen gai izan Emilio Mola generalaren tropak, militar, erreketek eta falangistek osatuak, geldiarazteko. Irailaren 13an Donostia hartu zuten, hiru aste beranduago, urriaren 4an, Ondarroa. Lekeitio izango zen hurrengo Austerrikan frankisten erasoak lortu ez balute gelditzea. Ikusirik,

erremediorik jarri ezean, nazionalak Bizkaian "erraz" sartuko zirela, abuztuaren amaieran Lekeitioko frontea sortu zen tropa nazionalen eusteko. Eta lortu ere lortu zuten, urriaren 12an Molak, estrategia aldatuz, tropa nazionalen aurreratzea geldiarazi zuen. Frontea Austerrikan egonkortu zen.

Han lehen hilabeteetan gertatutakoak, Patxi Juaristik ondo baino hobeto kontatzen ditu Kurik 3 aldizkarian argitaratu zen *Gerra zibila Lekeition eta Lekeitioko frontean* artikuluan. 1937ko apirilera arte mantendu zen berdinketa, 28an Lekeitio amore eman zuen. Ekainaren 19an Bilbok.



Italiako artxibo militarretan aurkitutako planoak



# La Messe de Campagne sur le Front Basque

## PHOTOS CHIM



Le prêtre, pendant une messe au front.

**C**'EST dans un village de Languedoc, au pays basque, par une méthode de dimanche, un grand rassemblement de soldats. Ils ont été amenés par le grand vent du Nord, à partir, par milliers, de tous côtés de l'arrière-front, vers les grands postes, à l'arrière-front, au même instant, quelque part, dans le sud d'un autre secteur, des gens défilent, comme des hommes d'armée. La bataille avait été terrible, les jours précédents, et les deux adversaires paraissent être épuisés.

Le bataillon, qui tenait le secteur, commandé par le capitaine de son régiment de première formation, dans ce village, et il, devant une dernière bataille, et dans une nuit, les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés, et les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés, et les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés.

Le bataillon, qui tenait le secteur, commandé par le capitaine de son régiment de première formation, dans ce village, et il, devant une dernière bataille, et dans une nuit, les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés, et les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés, et les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés.



Gudari aldizkarian argitaratutakoa, 1937-4-15. Regards aldizkaritik ateratakoa.




Les soldats, même devant les ruines, restent en ordre. Ils ont été amenés par le grand vent du Nord, à partir, par milliers, de tous côtés de l'arrière-front, vers les grands postes, à l'arrière-front, au même instant, quelque part, dans le sud d'un autre secteur, des gens défilent, comme des hommes d'armée.

Le bataillon, qui tenait le secteur, commandé par le capitaine de son régiment de première formation, dans ce village, et il, devant une dernière bataille, et dans une nuit, les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés, et les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés, et les deux bataillons, qui se battaient, ont été séparés.



Andres Idigoras Villar (Olabeagarra) eta Atzueta konpainiak Lekeition eta Zubietan atsedean egunetan



### Eguna, 1937-3-20 EUN TA OGEI EGUN GUDA-OÑETAN

Gaur ixango ba'litz lez gomutetan dot ze poz ta adoretzu urten gintzazan euzko-ikurriña aurrian daruagula. Gudara giñoyazan ta etziran ikusten arpegi itunak. Egun atan dana ixan san alaitasuna. Alde guzti-jetatik abesti aberkoyak entzuten ziran.

Itxas-ertzeko guda oñara bidualdu gindubezan ta Lekeitio'n egin dogu geure egon aldija. Eun ta ogei egun Itola, Anakabe eta Asterrika guda oñetan.

(...) Lekeitio'n, berton, be, egin doguz geure atsedean alditsubak. Itxas-ertzeko uri polit onetan adizkide on-onak eta begikuak egin doguz. Iñoiz aiztuko dogu Lekeitio'tik eruan gebazan oroipen gomutagarriajak.

Olabeagarra<sup>1</sup>

1 J. A. Idigoras, Atzueta konpainiako gudariak idatzitako artikulua.



Uribarren jauregia hospitale bihurtuta 1937ko urtarril inguruan. Argazkia: David Seymour (Chim). International Center of photography, icp.org



Baserritarrak ortuariak saltzen Lekeitioko plazan, 1937 urtarril inguruan. Argazkia: David Seymour (Chim). International Center of photography, icp.org

# GERRA LEKEITIO

## EN LEKEITIO HAY PAZ

En Lekeitio hay paz idatzi zuen Céniga medikuak argazki horren azpian eta hala zen. Bizkaian altxamenduak ez zuen arrakastarik izan eta lehen egunotan lekeitiarren bizitza ez zen aldatu. Argazki horretako torpedo ontziari egin zioten harrera horren seinale argia da.

Espainiako gerra espero barik hasi zenez, atzerritar asko, alemaniar eta ez alemaniar, ezustean harrapatu zituen eta horiek ateratzeko atzerriko hainbat itsas armada hurbildu ziren Espainiako portuetara. Horien artean itsas-armada alemaniarra (Kriegsmarine). Lekeitiora Albatros torpedo ontzia etorri zen alemaniar bila. Baina Maritxu Salinasek inork ez zuela alde egin zioen<sup>1</sup>. Udaletxea eta ospitalea bisitatu zituzten, trankil-trankil! gerrarik ez balego legez eta alemaniarrek Francoren aldekoak izango ez balira legez.

<sup>1</sup> Empezada la guerra apareció un barco de guerra que fondeó en la bahía. Tenía pabellón alemán. Hicieron señales con banderas desde el barco. Un bote con representantes del comité republicano de Lekeitio se dirigió a remo hasta él. Ninguno de estos representantes hablaba el alemán ni nadie dentro del barco el castellano. Volvió el bote al puerto.

En Lekeitio por entonces tan solo dominaban el alemán mi marido y Luis Gerrikaetxebarria. Luis estaba casado, o tal vez se casó más tarde, con una alemana, Alice, y era hermano de Galo y de Pablo...

Los representantes del comité buscaron a mi marido y a Luis y volvieron en el bote hasta el barco alemán, que creo que se llamaba el Albatros, con los dos intérpretes. Los alemanes estaban recorriendo los puertos de la costa, recogiendo los súbditos alemanes que quisieran evacuar para evitarles represalias, ya que Hitler se había puesto incondicionalmente de lado del bando nacional. El capitán del barco les invitó a un aperitivo a bordo y mi marido, que era muy simpático, sugirió al capitán y a los oficiales que desembarcasen y tomaran otro aperitivo en el ayuntamiento. Al principio se negaron por precaución, pero aunque pareciera extraño finalmente se dejaron convencer y desembarcaron, lo que me pareció a mí una imprudencia.

Alemanes en Lekeitio por entonces solo quedaban Alice, la novia o mujer de Luis Gerrikaetxebarria, Albine, el ama de la emperatriz, con sus dos hijos Tere y Otto, y la familia de los Wakoning. Ninguno quiso evacuar, así que al cabo de un rato los alemanes volvieron a embarcarse y desaparecieron camino de otro puerto.

✓ Julio de 1936 - El día 17 se sublevaron los militares dando comienzo la guerra civil que probablemente será dura, terrible, y más larga de lo que se creía los primeros días. A los pocos días vino a Lekeitio un torpedo alemán y el comandante van al ayuntamiento a saludar al Comité de Defensa y de allí al hospital de la Cruz Roja instalado en el palacio Uribarren. Esta visita probablemente habrá sido con objeto de recoger información del estado de los pueblos de Vizcaya y Guipuzcoa (pues ha visitado varios). En Lekeitio hay paz.



ROMPEOLAS -

✓ Julio de 1936 - El día 17 se sublevaron los militares y da comienzo la guerra civil que probablemente será dura, terrible, y más larga de lo que se creía los primeros días.

A los pocos días llega a la vista de Lekeitio un torpedo alemán y el comandante y un oficial van al ayuntamiento a saludar al Comité de Defensa y de allí al hospital de la Cruz Roja instalado en el palacio Uribarren. Esta visita probablemente habrá sido con objeto de recoger información del estado de los pueblos de Vizcaya y Guipuzcoa (pues ha visitado varios).

En Lekeitio hay paz.



La llamada y los soldados con refugio los autos - 1936 -  
morales y consuecos -

✓ El día 21 de octubre es bombardeado Lekeitio por primera vez por la aviación y continúan los bombardeos durante una semana ocasionando la muerte de seis personas y más de 20 heridos. Se utilizan las cuevas: del calvario, la que está contigua al cuartel de carabineros, la que va del Portal de Atea al río y la que está en la parte posterior del cuartel de la Guardia Civil. Se construyeron refugios defensivos por montones de sacos de arena. Al aparecer un avión sonaba la campana de la iglesia, la gente...

Hala ere, apurka-apurka aldatzen joan zen egoera (ikusi dugu abuztuaren 12ko Lekeitioko Euzko Gudaritzaren eskaria). Lehen uniformedun soldaduak agertu ziren eta Lekeitioko frontea sortu zen. Gainera Gipuzkoatik ihesean zetozen errefuxiatuek gerran geundela gogorarazi ziguten. Bakearen ilusioari errealitate gordina gailendu zitzaion, BONBARDAKETAK! El día 21 de octubre es bombardeado Lekeitio por primera vez... Ez zegoen inor salbu!!!

✓ El día 21 de octubre es bombardeado Lekeitio por primera vez por la Aviación y continúan los bombardeos durante una semana ocasionando la muerte de seis personas y más de 20 heridos. Se utilizan las cuevas: del calvario, la que está contigua al cuartel de carabineros, la que va del Portal de Atea al río y la que está en la parte posterior del cuartel de la Guardia Civil. Se construyeron refugios defensivos por montones de sacos de arena. Al aparecer un avión sonaba la campana de la iglesia, la gente...



CONSULADO DE ESPAÑA  
PAU  
Num. 979  
Pau, 27 de Noviembre de 1936

Muy señor mío y amigo:

Desconociendo el nombre de la persona que se halla al frente de los destinos de mi pueblo natal, me dirijo al cargo, para en su nombre, ofrecerme a todos los lequeitianos, para cuanto gusten mandarme, tanto en el terreno oficial como en el privado, desde este puesto del que he tomado posesión hace muy poco tiempo.

Aprovecho esta oportunidad, para rogarle se sirva darme noticias de D. Juan Ajubita y familia, pues su hijo Juan, me escribe desde Méjico diciendome no tiene noticia alguna de ellos.

Suyo afemo. s. s.

EL CONSUL DE ESPAÑA  
Pablo de Tremoya

Izquierda Republicana aldizkaria, uzt.-abuzt. 1951

**LETBAS DE LUTO**  
**DON PABLO DE TREMOYA**

Otro de los mejores que se nos fué. Con gran pena supimos de su gravedad, produida en unas horas; con inmenso dolor conocimos su muerte, que nos dejó añorados. Era el amigo leal de todos, el correligionario entusiasta, servidor de los hombres y las ideas, sin alharaca, y con nobleza y valentía caballerescas.

Prestó valiosos servicios a nuestra República en desgracia, como los realizó con entusiasmo y generosidad en los días felices. No abatió el infortunio sus afanes de ser útil a nuestra causa, siempre con el máximo desinterés. ¡Con qué dulzura fluyen de su corazón ardientemente en los labios. Cuanta bondad, cuánta sieron a prueba hombres y convicciones, don Pablo Tremoya, fué con otros leales, conducta y ejemplo, servicio y rectitud.

Lo quisieron todos y no tuvo enemigo. Enmarcarlo su atand en los anales de la Embajada de nuestra República, convertida en capilla ardiente, multi-sidente de la República Mexicana, que como conmemoración del señor Presidente.

IZQUIERA REPUBLICANA, tuvo el honor de formar la primera guardia ante los restos del querido correligionario. Y nuestro insigne don Alvaro de Albornoz, al caballero ejemplar, al republicano intachable, al gran servidor de la República. Que descanse en paz.

IZQUIERA REPUBLICANA, envía sus condolencias más sinceras y fraternas a su distinguida viuda, hermana y familiares, muy queridos de nosotros.

**EL SEPULCRO**  
El domingo 29 de julio el cadáver de nuestro querido correligionario y representante de la República española en Méjico, don Pablo de Tremoya, fué trasladado desde el edificio de la Embajada de España al Panteón de la República, donde recibió sepultura.

Las personalidades mexicanas y extranjeras que en gran número figuraban en el cortejo fúnebre pusieron de relieve el respeto que se sentía hacia el finado y las simpatías de que goza la República española. Presidió el duelo, al lado del jefe del Gobierno don Alvaro de Albornoz, el secretario de Relaciones Exteriores de Méjico, don Manuel Tello, a quien acompañaba el jefe del Ceremonial de la Secretaría de Relaciones, don Rafael Fuentes. En la presidencia de la comisión organizadora también los ex Ministros don José María...

# EL PEQUEÑO VERDÚN

CONSULADO DE ESPAÑA EN PAU Num. 979  
Pau, 27 de noviembre de 1936

Muy señor mío y amigo:  
Desconociendo el nombre de la persona que se halla al frente de los destinos de mi nunca olvidado pueblo natal, me dirijo al cargo, para en su nombre, ofrecerme a todos los lequeitianos, para cuanto gusten mandarme, tanto en el terreno oficial como en el privado, desde este puesto del que he tomado posesión hace muy poco tiempo.

Aprovecho esta oportunidad, para rogarle se sirva darme noticias de D. Juan Ajubita y familia, pues su hijo Juan, me escribe desde Méjico diciéndome no tiene noticia alguna de ellos.

Suyo afemo. s. s.  
EL CONSUL DE ESPAÑA  
Pablo de Tremoya

## ALCALDÍA DE LA M.N. y M. L. VILLA DE LEKEITIO

He aquí el momento de la bendición e inauguración de la cátedra "Resurrección María de Azkue", en la que los niños y jóvenes de Lequeitio aprenderán a escribir y leer en vasconia, logrando ser bilingüistas, a todos los efectos, y acabando con el analfabetismo que padecen ahora en el viejo idioma. Monseñor Garaygordóbil, las autoridades de Bermeo (sic), la Academia de la Lengua Vasca, diversas representaciones de todo el país asistieron a los actos que se celebraron con este motivo, de los que esa cátedra quedará como fruto perdurable. (Foto Cecilio hijo)

La carreta, con los bueyes, transportando el ajuar, en primer término, y detrás los novios, los padrinos, la "neskatilla" con las arras, el juez municipal, el vasco inmigrado de América después de hacer dineros, y caseros y caseras y el júbilo popular, en esta comitiva de la "boda a la antigua usanza" que desfilará el domingo, por la mañana, por Lequeitio. (Foto Cecilio hijo)

### Blanco y negro, 1964-9-12

#### FALSA BODA EN LEQUEITIO

En Lequeitio (Vizcaya) se ha celebrado una fiesta de exaltación de las costumbres tradicionales. En el marco de dicha celebración se organizó una boda de acuerdo con los más depurados cánones del lugar. A la usanza vasca, novios, padrinos, testigos e invitados simularon los detalles de la ceremonia, que despertó la curiosidad y el interés de numerosos forasteros, entre los que figuraban muchos extranjeros, que acudieron a Lequeitio. Del simulacro de boda ofrecemos en estas páginas y las siguientes varias imágenes, enviadas por don José Luis Vitoria a nuestro permanente Concurso de Fotografías.



Falsa boda, Blanco y negro, 1964-9-12. LUA 2327/8

La comitiva nupcial se dirige a la iglesia. El pueblo entero de Lequeitio se une a la representación de la boda al estilo tradicional vasco. En estas fotografías, mozos y mozas portan el ajuar de los novios, mientras en una carreta tirada por bueyes van los enseres de la pareja y, en un arca, la llamada ropa blanca.

Tras la carreta de bueyes y luego de la muchacha que lleva las arras, los novios. Muy serios, muy en su papel de revivir las ceremonias de una boda al antiguo estilo. La lluvia no faltó tampoco a la fiesta de Lequeitio y hubo que recurrir, como se ve en la fotografía superior, a los paraguas para proteger a la comitiva.



Para la solemnidad del domingo y luego de la muchacha que lleva las arras, los novios. Muy serios, muy en su papel de revivir las ceremonias de una boda al antiguo estilo. La lluvia no faltó tampoco a la fiesta de Lequeitio y hubo que recurrir, como se ve en la fotografía superior, a los paraguas para proteger a la comitiva.

#### COSTUMBRES VASCAS

Las antiguas costumbres, las tradiciones vascas, se celebran en la fiesta de Lequeitio. Como siempre, en esta ocasión fueron los mozos y mozas los que portan el ajuar de los novios. A su vez, el pueblo entero se une a la representación de la boda al antiguo estilo. La lluvia no faltó tampoco a la fiesta de Lequeitio y hubo que recurrir, como se ve en la fotografía superior, a los paraguas para proteger a la comitiva.

# RESURRECCION MARIA AZKUE-Z

ene oroipenak, eta entzunak eta irakurriak

**Egan, XXIII, 1964.**

Jaun-andreak,

Ez dut nire bizian Gipuzkoa eder hontan jende–urrean itzegin. Bizkaierazkoa da ene mintzura, ta barkatuko ahal didazue, giputzez idatzi uste izandako hau, bear bezelako doiñuz ta sendogarriz baldin eman ez ba neza.

Dena dela, ezetzari baietzez erantzuteko mesedez eskatuko ziguten ezkerro, orregatik agertu gera. Itzaldi honen gaia, atsegingarri da guztiontzat. Toki hau eta are entzuleok, orobat niretzat.

Eta besterik gabe, jo dezagun arira.

Osasunaz nahiz ondasunaz, adiskide miñez edota gurasoetaz gabetzen geranean gertatu ohi zaiguna, horixe gertatu izan zitzaigun Azkue–z ere.

Gure aldameneko, auzoko, ikusterrean ta entzuterrean genduenean, ez genion jaramon andiegirik egiten. Agian, hura zaharra zan; gu, gazteak. Orraitio, geroago ikusten ditugu haren lanak, liburuak; geroago aztamukatu haren nekeak; gerogarrenean neur-tzen ta estimatzen haren garra ta jorana, haren mingots–aldiak, haren izerdia. Bizi luzeko eskeintza izan bait zan, harek Euske-rea–z egin maite–eztai urraturik gabea.

Azkue jakintsua, biltzaillea; araugille ta antolatzailea izan zan; irakaslea betiere. Azkue–z erran ditekeana, halaere, ez da oso ta bete izango, harek sortu musikaz eta haren elederraz ta poesiaz ere itzegin ezik.

Ta batez ere, elerti–puxka zoragarri diran haren gaztetango lanak, “Bein ta betiko”, “Txirristadak” eta abar dastatu ta gozartu ezik. Eder–letra kontuan moko fiñak diranek, haren lenbiziko lanetan izango dute, geienbat, elerti–ukitu hori. Halako bizitasun eta etorria; halako izatetiko jator–usain eta keru atsegiña.

Jakintza–gaietan jardutea nekagarri ohi da, maizenik; hortan ere, alegia aldika–aldika atsegin ta poz sakon, bedegar ta ernagarriak nabari izan arren.

Guk geuk, Azkue bi bereziko ditugu beti. Batetik, jakin–gaietan eta maisukuntzan ari dan gizona. Eta bestetik, artista–anima izanik, idazten edota musika sortzen jardun

izan duen euskaldun jatorra. Lendabizikoa, buru–neurritz, gogoko zaigu. Bigarrena, ordea, ederjarioz, goxo–erasoetan, iturri gozagarri izango zaigu, aomenaren ezti.

Lekeitio–ko Udalak, lau Diputazioen laguntasunez, dei egin nai luke laister, jakintsuek Azkue–ren neurria, luze–zabal–sakona ikas dezaten eta beurek mamitu gutun horiek guretzat orain, eta ondorengoentzat gero izan ditzagun. Lau aldetarik gutxienez, aztertuko behariko Azkue gurearen lanegiña: euskal–itzen biltzaille, literatura–gille, musikari ta erri–jakintzazale bezala.

Izan ere, oraingo ereti auxe ez gendukeala alperrik galdu behar, erran genion gure alkate jaunari. Zera, Azkue–ri buruz, argiro ta andiro egin gogo ikaste–jardun mardula ernaraztea, ezin zitekeala beranduagorako utzi.

Gorago esan dugunagatik, jakintzazko itzaldia baiño oroipenez ornitua zitekean jarduna nai izan dugu ari–albaiñuz josi, ta zuta–zeurrak bilbe ariñean zertu. Haren zertxo bereziak, bidealdiko nekeak eta joera kutunak eta tirriak jarrierazi gura ditugu berriketa hontan. Gai astunak beude jakituen tzat.

Ez zan edonor gure gizona. Bere sorterrian eta auzoetan ere hainbestekoa zala uste izan ez zuten arren. Sarri gertatzen dan kontua.

Haren aita, ama ta anai–arrebak ezagut ditzagun, ordea, lendabizitik. Aita, Eusebio Maria de los Dolores, euskal–olerkari ona izan zan. Olerkari itz hau, begiko zitzaion gure apaizari. Haren ama ere, euskalduna ta euskaltzalea zan, noski, maizegi gertatzen ez dan kontua. Eusebio itsas–gizon eta nautika–irakaslea izan zan; baiña latin ta filosofia ere ikasi zituen. Lenengo karlistadan Carlos V–garrenaren gudumutil izan zan; ez, ordea, boluntario. Mitologi–usairik andiena duen euskal–olerkaria, nunbait. Hor dugu haren bertsu–sortaz semeak tajutu liburua: “Parnasorako bidea”.

Emazte bi izan zituan Eusebio–k. Ez, alegia, biak batean, bata bestearen urren beraiz. Lendabizikoaz, Laureana Ozerin bera, lau seme–alaba izan zituen, Txorierrin, Bermeen eta Mundakan bizi izan zanean.

Azken uri hontan alargundu zan, ta berriro ezkondu —idiaren eta arriaren kontu horri jaramonik egiteke—, Mari Karmen Aberasturi alargun gaztearekin. Anartean, Eusebio–k 44 urte zituen; eta andre gazteak 22, ta seme–alabarik baterez.

Gero, 1861 gn. urtean, Paris–en banckeru andi zan Uribarren zaldun aberats eta eskuzabalak Nautika–eskoletxea diruz poliki ornitu zuen Lekeitio–n. Eusebio eta Angel Maria Ventadez izendatu zituzten irakasle–tzarako. Urrengo urtean bere jaioterriratu zan, Eusebio gurea.

Lendabiziko ezkontzako seme–alabak: Alfonso Maria (184...), Carolina (1849), Conrado Maria (1853) itsastarra izan zan ta Habanan il zan; eta Sol, alaba (1856).

Bigarren ezkontzakoak: Julia (1858–59), Aurora Maria (1860) eta Jesus Maria (1862). Baiña Lekeitioen jaiotako hauek dira: Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves (1864–VIII–5), Maria Luz (1867), Diana Maria (1868), Julia (1870) —bigarrena izen berdiñez, lenengoa il bait zan—, eta Heliodoro Maria Antonio (187...).

Doña Sol maistra, andre txiki samarra ta beltza, entzutezua izan zan gure errian. Makilla luze luzea erabili oi zuen. Eskolatokia ere txikia bait zan, eserita zegoen lekutik luzatzen zien makilla hura —barakuillu antena iduri—, mutiko ala nexkatoak buruan, kaxkoan jotzeko.

Eusebio, lekeitiarra izan arren, bere denporan kanpoan ibillia zalako, mintzuraz ez zan jatorra bere errikideen ikusian. Gizon buru jantzia, mazala ta atsegiña, Anton Trueba–ren itzetatik. Zozo bat ala perruketa omen zeukan, izketan zekiana: “Azkue–n zozua naiz ni... Urta pepito! Tuuurrit!”.

Hura ere umore onekoa zan, semea izango zan bezela. Olerkari hartaz ba du Aita Lino–k zerbait esateko. Alegia, poemaren bat dala hor nunbaiten argitaratzeke, euskal–mitologiari buruzkoa ta “Euskadia” duela izena. Anartean, Arana–Goiri sortzeko edota mutil soster bat izango zan, noski.

Resurreccion de Jesus–en bizitzako kozkarik zerenak, ba dakizkizue. Lekeitioen jaiotako zela eta itsasketa–gaiak ikasten asi. Gero, ba-

# EGAN



Ezin zen gure morrozkoa falta, gugaz egon da hasieratik eta gugaz erretiratu da. Eusebioeren idatzia, garizumia baino luziago, aproposa begitandu zaigu leku falta adierazteko.

txiller egin zela Bilbon. Urrena, Gasteiz alde-ara apaizgei, eta azken estudioak Salamankan egin ondorean, Teologiako maisu edo doktor. Hortaz landa, musika–gaiak ikasi zituen biziki, Bilboko, Bruselako ta Koloniako kontserbatorioetan. Apaiz ordenatu baiño lehen, Bizkaiko Diputazioak sortu zuen euskal–katedrako maisu izendatu zuten 1888’gn. urtean. Egungo egunean ez dakigu irakas–alki ori non dagoen.

Haren lanak ez ditugu aipatuko, ezagunak baitira geienak. Izkuntzari soillik dagozkio- nak: iztegi andi ta txiki, gramatikak, itzaldiak, bai mintzairari buruz bai musikari; musika sorta mardulak, erriakintza gutunak, elizako gaiak eta kantak, eresi gozo ta elelderreko lan politak; teatru lan ariñak eta baita operak ere. Eunurteburuaren gomutagarri, Argentinako Buenos Aires–en jo nai dituzte “Urlo” opera- ren zati autatu batzuek, eta ango orkesta on batentzat eskatu izan dute, orain bizpairu illabete, lan andi horren partitura.

Albistari alai ta azkorra ere izan zan, berriak eta albistak berak asmatuak izan arren. Elelder–atal bitxiak dira haietarik anitz, umore onez egiñak, gatz eta pipe- rrez maneatuak, irudimen eltzea irakiten zuela idatzia. Erriko izkerak ederki dastatu eta atsegingarri ematen dizkio irakurleari. “Euskalzale” eta “Ibaizabal” astekarietan egin zuen hori. Lendabiziko paper horri beiñola milla pezetako zigorra ezarri zioten. Ez zan, ordea, kalte txikia 1.000 pezeta edo makur 1897 urte inguruan. Erreal bateko laguntzailleak—eta izan zituen orduko diru mordoska ori gizentzeko. Gizon kementsua zan, egitan!

Adiskide kontuan, gorabehera andiak izan zituen Azkue–k.

Adiskide zintzorik bai noski; bere erritar- rarak esaten dutenez, lagungiña ez zan baiña. Maiz erran oi den bezala, ez zan igarle izan bere sorterrian. Erri txikiak, izan ere, andie- taz bereziak dira. Baiña hokie ere ba dute sarri askotan mukerkeria ta esker txarra. Bilboko idazle batek ango egunkari batean ots egin zuen joandako egunetan Bilbo–k Azkue–ren alde ta oroipenez ezertxo ere egin ez duela–ta. Eta bertako seme izan zan Julio Urkixo–z, zer egin ote du Bilbo–k? Guk dakigunez, itsua- rena ta gorrarena.

Azkue gurea izaeraz, aiurritz bakana zan, meatza. Guztiok ez ote gera bakanak? Ba da- kigu odol–gorria zena, berberak idatzia baita. Suminkorra edo zan, ta bapateko asarreal- dian behoko ezpaina dar–darez, ikaraka asten zi- tzaion. Orraitio, biotz onekoa zan gizajoa, samurbera, alafia ta esku–zabala. Apaiz zahar

batengandik entzunberria dugu: “Ume aundia zan. Edonori laguntzeko gertu egon ohi zana. Baiña ez zan lagungiña. Besteak baiño gorago ibilli behar izaten eban. Bere eritziak ziran be- tiere, besteen gainetikook. Arentzat B. Zapi- rain ta Aita Otaño ere, ez ziran iñor oharpenik egiteko. Orregaitik edo, “Altos hornos” esaten eutsen aldi batean.”

Gaiñera, gaztetandik errira alako garriko zabalaz apaindurik, apaiz baiño ere gei-ago ze- lakoan, jesuita edo, agertzen zalako, bere den- porakoek arroa erizten zioten, buru–iritzia.

Nazario Oleaga zenaren esatez, setatsua omen zan, baiña ez setatia. Eta izan ere, behin baiño sarriagotan idatzi izan zuen Azkue–k besteren oharrak jasoteko gertu egongo zela, jakituria–bideetan guztiok lagunkide giñala- ta.

Gizon ederra zan, luze bai zabal. Azal zuriz- ta, begi argia. Biziki lerdena ta andia gazteza- roan eta garerdikoan; eta lehen tantai ta luze bezin makur ta kakotua zahartzaroan. Arpegi borobilla, masailla txuri–gorriak; ederra gizo- na.

Bakarlanen zalea zela, latza geienbat, agin- tari–jitezkoa edo, irakasle–aizez joa. Esanak esan, ordea, ezagutzen zuen bere burua, Txo- min Aguirre–ren eriotz–ondoko itzaldian, 1920–IV–5, hauxe irakur diteke, Azkue–k berak idatzia: “Odol–gorri izateak ba ditu odol–zurbillak etzautzkan alde bat edo beste- txo; alderantziak egiago. Odol–gorri geranok, lanean asteko zainetan darabilgu baikortasu- na; odol–zurbillak geienak izan oi dira ezkor. Odol–gorri geranok, iraunkorrako izan oi gera geron asmoetan, lanetan sendoago; baiña gizartean bizi izateko, alde andia daukate aur- pegi–txuri, aiurri bigundun gizonok”.

Abuztuaren 5’gna. egun andia izan ohi zan Azkue gurearentzat, Gonzaga sainduarentzat bere bataiokoa bezala. Meza eman ondorean, eta ohi zuen otoi luzea amaitzean, azken urte- tan beste etxe batean bizi izan bait zan, bere jaiotetxera abiatzen zan, etxeari ta angoei age- rraldi samurra egin ta bere sortetxe kutunean egotaldi gozoa egiteko. Oroipen atsegiñez be- teriko bataio–eguneko goiz udatarra!

Biotz samurrekoa zan. An, Lekeitioen 1936 garagarrillaren 28, San Pedro bezperan VII’gn. Eusko–Olerti eguna ospatu genduen, Azkuearren omenez. Aita, anartean, illik ze- goen; bizirik semea. Arratsalde eguzkitsuan, Eusebio–ren jaiotetxean itzaldi labur baten ondorean arlandu txuria agertu genduenan, Monzon–Olasok bere jardun bero ta bi- giñean, aren ama Mari Karmen aipatu eta ama–semeen maite–urrumaren doiñua ta eus-

kal-txertua agertu zigunean, antxen aurrean zutik zegoela, don Resurreccion begietatik malko-jario, zotinka ta dardar, gorputz osoa ikara ikusi genduen, arnas barerik irabiatu eziñik.

Emaillea zan, txit esku-zabala. Ez ote zigun berak esan iztegi andienaren aitzin-so-lasean, diru-kontua beretzat *egoe* zala, ta ez *ipar*? Eta ain zuzen, euskal-lanetan jardutearren bere katanarrua beti zimel ibilli ohi zala, betiro *zero* mailla inguru, termometrua neguan bezala?

Gogo onekoa zan, gaitzik gabea. Euskera erabiltzen izan dugunik trebeenak, “Orixe” azkarrak, eman zigun lekukotasuna hortaz, esaldi mamitsu hontan: “Naiago dut atzipe-tua izan, nik neuk iñori ziririk sartu baiño.” Amaika alprojak jo ohi zuten harengana diru-eske, batzuk egitan premiñadunak, beste batzuk alperrek eta zuri egiazkoak. Iñoiz diru-mordoskaren bat garbitu omen zioten, bere burua katoliku egiten zuen frantses batek eta geiagok ere.

Urtero eldu ohi zan bere jaioterrira, biz-pairu illabete han ematekotan. Agertu ez zanetan, arako Alemanian ibilli zanean batez ere, miñeri izugarri izan zuen ta orduan egin zuen “Errimina” deritzon olerkia, bere erriz ta bereziki bere amaz gogoraturik. Biotz-ondoaren isuria agertu zuen orduan ere.

Gertua ta laguntzaillea zan. Egun latze-tan harek egin zion mesede andia, lanbidea ez galtzea, jakiñerazi dit egun hauetan ene errikide ta adiskide zaharrago batek. “Orixe” zenak berdin adierazi zigun mesedegille izateari buruz, berberak ere bizibide ta ogibidea iritxi izan bait zituen Azkue-ren bitartekotasunez.

Apaiz bizitzarako ere billatzen zituen tarte-bitarteak. Goizean meza santua eman ondorean, otoi luzean jarduteko oitura zuela, agertu dugu lehen. Jaiera andiko apaiza omen zan, ta eguerdi illuntzetan ere egiten omen zituen bere errezuak, astiro ta sakon. Gaztetan, Santiago elizan, sei urte inguruz, goizeko mezatan egiten zuen bere itzaldia. Geroago, igandeetan, San Nikolas eleizan amaika ta erdietako mezatan euskeraz. Aldi batean, Andre Rafaela Ibarra, saildu otsean il zenaren kapellau izan omen zan, urte batzuetan. Bilboko eliza bateko parroku izatea ere eskeiñi zioten, eta diotenez, kallonje jaun izateko aukera ere bai. Garizumetan Arabako erri txiki batzuetara joaten zan, sermoiak egin eta kantatu eta soiñua jo ere bai, ortarako tramankulurik an baldin ba zan. Beste bein, Frantzi aldean zeuden

erraldatuei misiñoiak ematera joan zan. Lan berdiñerako askok edo zenbaitek eman zuten beuren izena, eta ain zuzen, beste lekeitiar bat eta bera izendatu zituzten alkarrekin ibiltzeko, ta Bordalet aldean ta inguruetan jardun omen zuten; itzaldi, kantu eta soiñu-jotzeetan han ere, gure apaiz euskaltzale ta musikaria.

Ibiltauna bezin jatuna zan. Azken-urteetan ere, haren neskamea beti ibilli ohi zan arduratan; ezin ba beti jarri, errez ere ez zan ta, apaiz zaharrari komeni ere ez zitzaion-eta, ezin ba beti jarri babarrunak hark nahi zituen erara: beuren anaiekin batean, urdai, lukainka, aragi, saieski ta abar. Horrelakoe-tan asarre xamar izan ohi zan. Janari ariñegiak janta, ez lanik egin, ta ez bizi ere, ezin zitekeala-ta... Ez dirudi mediku-zalea zanik ere. Ba zuen bere seigarren sena. Iñoiz esku-muturra ala saietsa autsi-uraturik izanik, bere kabuz ta kontura jarri omen zuen. Nunbait, errijakintzako osaketaren batzuk egiñaz, arako Arnobatekoen gisa. Gertaliski ugari ta bakanak izango zituen noski, berberari gertatuak, bere ibiltaldi luzeetako gertari parragarri ala negargarriak. Baiña tamalez, ez dirudi bere egunkari edo antzekorik zertu zuenik. Umore onekoa ta urduria bait zan, gutun irrigarri geiago utzi zitzakean gure pozgarrirako.

Bere lendabiziko izkinde aura, euskera utsezkoa —aldamenean gaztelania lagungarri— bere “gaztetako obena” zela esan ohi zuen, “esperanto vasco” zelakoa. Baiña, noski, liburu mardul hura ez zan izan alperrik egiña. Pianu-jotzeko aulkia apalegia izatea gerta ba ledi, eserlekua arrotzeko, loditzeko hala-halakoa zela... Egia esan, izkinde ospatsu hartan, algotz artean ba da ale borobil ederrik ere. Bere denboran “rape” autsaren zale izan zan, baiñan azken urteetan tabakua erretzen ere ikasi zuen. Nonbait, kanta zahar-raren oiartzun makala zebilkion durundu emez belarri-zilloetan:

“Ai, Mari Manu,  
Ai, Mari Manu:  
pipia artuko nuke  
tabakua ba nu”...

Bere iztegi andienaren frantses-azalpenak apaiz eskualdun-frantses batek egiñak omen dira. Horixe erran dit gure erriko apaiz batek, bertze hari entzun ziola-ta. Izenik ematerik ez dut iritxi. Ba liteke, baiña arrigarria da, Azkue bere laguntzaileen izenak aipatzen oso kontzientzi andikoa izan bait zan. Bere lanetan agertzen du jokaera zintzo hori noiz-nahi, ta barkakizun litzakio, hala ba litz.

Itz jatorrak eta neologismuak ere atsegin zitzaizkion arren, pertsonen izen berrien zale ez zan beñiere agertu. Alde hortarik anima zaharra zuen noski, eta oldar berriaren uberan jartzea, gogor samar egiten zitzaion. Euskal-izen haien kaltez ari omen zan beñiola ere, bere errikide ta apaiz lagunekin: —Koldobika, Igone, Iñaki, Edurne... nun-go edo nolako santuak ote dira hoiek?

Baiñan nork erantzuna mundu hontan faltatzen ez-ta, apaiz gazteago batek jardetsi omen zion:

—Ba, jauna, Aurora, eta Sol eta Diana ere eztakigu nongo eta nolako santuak ziran.

Anartean, Azkue-k bizirik zituen iru arreb-en izenak bait ziran.

“Txirristadak” gutuneko orrialdeetan umore ta zorroztasuna agertzen dizkigu, ta baita sikologi-ukiturik ere. Arako Elantxo-beko ama-alabak, Okelaxuneko Mariña-si eta Krispiña, haren neba ta honen osaba indianu elduberriarengana zioaztela, beste iñork baiño lehen amak bere alabarentzat arrapatu nai zuen-ta, alaba gaztea apain jantzirik zioalako, ezagun andre batek agiraka egiten dio Maiñasiri:

—Markesen alabak lez, ez jantzi horretarako.

—Ezetz diño. A koitadua! Ez ipiñi amuari karnatarik. Ze atrapateko? Karamarrue?...

Arbasoen erriaz oraingo batzuek duten iritzi berrien zera ere aintziña ohartu zuen Azkuek. Alegia bigarren aberria, semeen aberria dela. Ikusi *Ardi galdua*-ren itzaurrean ematen duen azalpen laburra.

Euskerak zituen etsairik agerikoenengatik maiz idatzi zituen egia biribillak; irakasleak eta, apaizak eta... Baiña monjatxoak ere beuren erdal-mintzoz haren euskaldun bihotza, miñez jartzen zuten. Euskalerrian egon eta bizi, eta beti erderaz jardun bearra! Lekeition bertan, beñiola, duela berrogei urte ta geiago, sarri bezala apaizgei gazteekin zegoelarik, monjekin artu-eman andia zuen apaizgei ausart bat ere antxe zegoen. Azkue gureak honela zion:

—Hoiek, Karidade alaba hoiek ere, iñoiz ere ez euskeraz... Zerbait esatea merezi luke-te. Esango al diezu zeuk?

—Bai, jauna.

—Galdetu esaiezu ea karabiñeru-alaba diranentz.

Entzun ta egin. Urrengo goizean bertan gazte harek laister arin adierazi zien, meza-eraso ondorean:

—Zera, Azkue abadeak auxe esan du zuei esateko: ea karabiñeru alaba zeraten?

—Ene! Ori esan al du don Resurreccion-ek? Eta zergatik?

—Zergatik? Beti ta beti gaztelaniaz ari zeratelako...

*Ardi-galdua*-n ere ain zuzen, aipatzen du mojatxo zoriononekoen erdal-izpiritua eta mingaiña:

“Komentuak agitz euskeraren obiak dira, esatea lotsagarria bada ere” (81 orr.).

Antonio Tovar-ek horrelako zerbait azaldu zigun haren illetako itzaldian Bilbon, 1952.

Austria-ko Emperatriz Zita delakoa Lekeition bizi izan zan urteetan, 1922-1929 bitartean, haren aitortzaille izan zan Azkue.

Iñoizka gertatu ohi dan bezala, beñiola legorte andia izan zan, eta Lekeitio ta inguruko baserritarrak ango antxiñako irudia, Antiguako Ama kaleratzea eskatu zuten, ohi ziralako antolamenak egin ondorean. Azkenengo egunean atera zuten Andra Mariaren irudi miraritsua, eta plazan bertan erri osoa ta inguruko bost baserrieta-koak ere bai, bazterrak betean zegoztela, Azkue-k berak egin zuen sermoe bero ta gartsua, etorri andikoa agertu bait zan egun hartan. Diotenez, illuntze ostean egundoko euri zaparrada mamiñak egin omen zituen. Baiña, sermoe aldian bertan, gure iztuna sutsuen ari zela, gezur-ortz-agiñak jklask! erori egin zitzaizkion beuren tokitik erauziak, baiña bai Azkue-k berpertan besagain artu ere.

Orduan, aurre aurrean zeudenak ao batez esan zuten:

—Pelotari ona!!!...

Kanta ta esaerak eta ipuiñak paperean jartzen oso azkarra omen zan. Batez ere melodiak bertatik zertzen zituen, eta bapatean paperean idatzi, lapitzez geienbat. Batzuetan gauza oso ezaguna baldin ba zan, beste ipuiñen bat esateko edota beste kantaren bat kantatzeko agindu ohi zion laguntzailleari.

Anima kontuak aparte, ba dakigu bere iritzi eta asmoak zituena, guretariko edozeiñek bezala. Lendabiziko gerrate europarra zelata, frantsesak pasaportea ukatu zioten, “germanofilo” agertzen zelako. Ta egia esan, ez zan batere frantses-maitea. Haien santa andia, Arkuko Jone, ez zitzaion nonbait atsegin; galtzadun bat aldarean, ezpata zintzilik, eta emakumea gaiñera... Azkue-k berriro ere Eskual-herrian lehen bezin lasa ta zabal ibilli beharra zuen, ango zerak ikasteko ta biltzeko, lehendik zeuzkan paperak biltzeko ta ugaltzeko. Ezagun baten bitartez asi zan. Lekeitioko Carlos Solano zalduna izan zi-

tzaion lagun, urtezati batean Lapurdiko Altsu-n bizi izaten bait zan. Eta hangoetarik, Aita Lhande, S. J. ta Abbé Blazy izan ziran bitarteko. Eta iritxi zuten berriren berri, bide-giltza, pasaportea, Eskual-Herriratze-ko. Eta gaiñera, esku-erakutsi bezala, Eskualzaleen Biltzarrekoek zillar makila bialdu zioten Azkue-ri, anaitasun ta adiskidantzaren ezaugarri ta sendagarriztat.

*Urlo* operaren adelu-gaua Bilbon, doakabea izan zan, ordea. Musika makala duelako ez noski. Teatruan agertzeko gertaerak eta atzera-aurrerak, gorabehera ta azi-orraziak bere eskuetan soillik erabilli zituelako bai-zik. Ez ahal zuen aski, lana eta musika ere, ta orkesta kontua, bereak izatea? Tenor eskas samarra ekarri zuen, katalana bera. Baritonua, euskaldun omen zan. Orkesta ere Barzelonatik eratorri, entseiurik eskas, paperak berak lapitzez zertuak eta azken-egunetan ariñak-arin lekeitiar apaizgeiak orkesta-koentzako tintaz jartzen... Ez dakigu egilleak paper guztiak aztertzeko ta zuzentzeko astirik eta betarik izan ote zuenentz. Dena dela, ordua eldu eta agertu zuten opera. Damurik, Molokot itzela, ezbear madarikatua; bein barrik erakutsia, errenka ta guztia bearrean, errenka ta arnaska eldu zan azkenera. Azkue manduak ilda geratu zan, lurra jota, zorrez beterik. Orduan izan zuen gizarajoak estutasuna ta arterik artu eziña. Mundua utzi, eta bazter izkutu batera joatea erabaki uste zuen.

Eta baita egingo ere. Irten zan Bilbotik, Gipuzkoan zear, Loyolarantz... Baiña bidean, atsedenaldia egin behar, eta adiskiderik andienari agur egin behar. Eta Zumaiara eldu zan. Han zegoen beste apaiz bat, zeukana eman beharrez gosez gaisotu zan apaiz maitagarria, Seminarioko laguna eta arrezkero betidanikoa: Txomin Agirre ondarrutarra. On utsa, gozoa ta odol-zurbilla zan harek, ordea, gogor eraso zion Azkue laguntzarrari honen aitopena entzun ondorean.

—Nola? Zelan? Zorrak sortu, eta garbitu gabe mundutik igesi, ta etxe santu batera? Ez, enetxoa, ez! Zorrak ordaindu behar dituzu lenbizi. Eta nola? Ba dituzu adiskide eukitsuak. Hoiek lagunduko dizue. Apurka apurka zurutuko dituzu gero zeure zorrok.

Eta Azkue andia, odol-gorria, bere adiskide min odol-zurbillaren esana egiteko prest egon zan beingoan, eta berriro Bilbora, ta Lekeitiora, ta Euskalerri osora bere lan andiari jarraipena ta azken urrezkoa eman arte.

APIZTU (B, arc) Hona hemen itz bat, aspaldikoa delako, Azkuek berak ere, arkaikutzat joa. Apiztu=hurtar.

Itz egokia Iztegi andienari berari gertatu zitzaiona adierazteko. Ebasgo biguin, lapurreta malmutz edota apiztute hori zela-ta, Azkue mindurik, minbera egon ohi zan. Harekin lendabizi itzezin nuenean jakin nuen hori lenengoz. Iztegi nagusiaz baliatu ziranak ez zioten horlakorik adierazi, ez bai-menik eskatu, jakiña; ta ezta dirurik eman ez eskeiñi ere. Moztua, laburtua, edo nahi den bezela; geitua agian, argitaratu zuten liburu txikiagoan Azkue-ren iztegi andia. Ausaz, diru-saria urrengo argitalpenen batean edo emanen zioten.

Ez zan zuzen ta bidezkoa izan jokaera hori, apika. Orregatik, geroago, argi ta garbi azaldu zuen berak “Euskalerraren Yakintza”-ren itzaurrean, lendabiziko liburuan, 22 orrialdean, VIII: “Toursen argitaratu nuen Iztegiaz gertatu zitzaidana liburu laukoitz onezaz jazo eztaکیدan, lan hura berendu zutenak bekite: lan berri onen egille nerau izanarren, yabe beste bat dala; eta nik orduko aren yabetasuna baiño beste onek oraingo onena, obeki zaindu ta gordeko duela.”

Tovar-ek erara dion bezala, zuzentzaille ta araugille genduan Azkue apaiza. Ta ez liburutetan eta kantuetan soillik. Lagunartean ere, itzetik ortzera zuzentzen zekian harek berriketalarien itz ez egoki edo itzurren okerra. Etxean ala kalean berdin zan. Aita gure zenari entzuna dut beñola emen Donostian gertatua. Estropada eguna zela, eta an bapatean edo, irudi bat agertu zela millaka ikusleen aurrera, pizti narrastariaren irudia. Orduan, norbaitek oiu egin zuen:

—Lagartua, lagartua!...

Eta Azkue andiak bertatik zuzendu ere:

—Muskerra, gizona; muskerra esaten da euskeraz.

Beste bein, gure errian bertan, kalean zear zioan mutiko batek diadar egin zuen:

—Txo, karrua!...

Gure apaiza mutil sostorraren atzetik segika joan zan, eta ostiko punteaz ipurdian jotzeko imintzio egin ere bai, baiña ez zuen arrapatu. Bitartean, agiraka egin zion kakanarruari:

—Txotxo, karrua diñok, kirten horrek, karrua? Ez al dakik burdiya esaten, madari madariena!

Mutikoak ez entzun ez erantzun, ez atzera begiratu, anka! egin zuen. Ziur asko lenengo aurkitu izango zuen beste mutikoren bati azaldu izango zion gertatua:

—“Axe ra abare gaixtua! Karrua esan doralako, ostikuaz iya uzkiya apurtu! Yoik ama!”. Apaizgeiak udan, harekin sarri bai sarri

aurkitu beharra zutelako, erdi bildurrez egon ohi ziran, euskera lorrinduan arrapatuko ote zituen Azkue-k. Horrela, mintegitik kanpo ere, ba zuten euskalitzun izan behar zutenek, maisu jakintsu ta argia. Orain, tamalez agian, ez dugu euskal-zuzentzaillerik asko. Oraingoan, hor dabiltz askaturik barbarismu, solezismu, itzurren oker eta abarrak. Abstraktu egin ote geran ez dakigu, euskal-idazkeran ere.

Tartaroak. Arana-k indartu zuen atzizki hori ez zitzaion begiko aldi batean. Deituren jarrai, batez ere suskizioetan eta, ainbeste tar... tar... tar... irakur zitekealako, tartaro berriak genituela gure errian agertu omen zuen Azkuek. Baiña... bera ere hortan auzo-lankide izan zela azaldu behar dugu orain. Eta irrigarri ta isekapean berbera ere, bere burua ere, sartu zuela iñoiz.

Aldakuntzak ere egin zituen-ta!

Euskal-izkindea, Azkueko R. M.-k egin zuen.

Bein da betiko, Azkueko R. M.-k egin zuen.

Baiña “Txirristadak” liburuan, beste liburu batzuen iragarpena egitean onela datza: R. M. Azkue-tarrak egiña, bai lenengo horri ta bai bigarren horri buruz. Liburu-azalpean, hortan, beste hoiak ere iragarten ditu:

“Parnasorako bidea”, Eusebio M. D. Azkue-tarrak...

“Esku-liburua”, Fr. P. A. Añibarro-tarrak...

Baiña...

“Añamendiko lorea”, Agirre-ko Domingo abadeak iratsia.

“Kristau Doktriñ” Ubillos-ek gipuzkotareez (sic).

“Konfesiño ona”, Mogel-ek iratsia...

Bakarti samarra izan zala esanarren, lagunartekoa ere ba zena ondotoxo dakigu. Amaika lagunena adiskidetasuna eta amaikaz egon-beharra izan zuen ainbeste ta ainbeste itz, ipuin eta kanta, erriko izkera bizi-biziaz jabetzeko.

Bere azken-urteetan, apaiz lagun baten etxera joan oi zan jai arratsaldeetan, berrikeretan jardun eta musean jokatzea. Agirre kalera agertzen zan maiz, eta ba zituen an beste adiskide batzuek ere. Bidealdi luzeska izan arren, oiñez ibilten zan geienbat Bilbon zear ere, antziñetako ibiltaldi luzeen arabera.

Erri-maite itsua zela adierazi dugu. Euskaltzaindiaren etxe zahar hartako ormetan zintzilik, iru edergarri zituen berezi, lagun kutun bezela. Bere sorterriko lekuko maitetak. Iru argazki apain ta andiak, batez ere bi. Hoiatarik bata, luzanga zan, lau zatiez

bakar bat ornitzen duena: portu osoa, alde-ren alde erakusten digu, eliza atzetik asi eta ipar-moilla muturrerainokoa. Hantxe ageri da, azken urteetan bizitetze izan zuena, nasa gainean, Txatxu kontramaisuaren moillako 32'gn. etxe gora ta lerdena. Andik urbil lertu zen bonba bat azken gerratean, eta lagun batzuk il ta zuritu, eta Azkue-ren langelan ere, kalteak egin omen zituen. Zorionez, ez zegoen hura orduan han. Jaio zan etxea ez da an ageri, Apalloa 20'gna.

Bigarren argazkiak, plaza, elizaurrea ta kaia erakusten dizkigu. Ta irugarrena, Lekeitio-ko Basilika erakusmenekoak duen aldare nagusi ta oholtza aberatsa, gotiku loretsu ospe andikoa, gaur pipiak eta zedenak joa, galtzeko arriskuan dagoena. Kuadru hori Azkue-k Euskaltzaindian zeukan bere pianuaren gainaldean orman zintzilik isekita euki ohi zuen, aurrez aur, nabari, ikusterrean.

Ibiltuana esanik dugu; ez ordea, arlotea, gizon apain ta galanta baizik. Aren begi argi ta ederrak, itsas-zale ziran, arean. Lekeitio zegoanetan, etxetik elizara ta elizatik etxera bideak, moilla ertzean zear egin ohi zituen. Bilbon ere, nasa ertza zitzaion atsegiñen. Eta ura, beti ura, kaiekoa, itsasokoa ala ibai andikoa; eta ontziak, itsas-gizonak, antxetak eta kaioak begien edergarri ta kontsolagarri. Eriotzarako zidorra ere ibaiko ur zikiñetan aurkitu zuen. Gau batean erori zan Arriaga atzean ibaiera, ta andik lasterrera izan genduen haren gorpu-lorra. Gizon batek atera zuen ibaitik, baiña gizon honi ango istilluetan, kartera ostu zioten. Berriz ere lapurrak Azkue-ren ondorik...

Gogaro onekoa zan ta jolaserako bizarra noiznahi. Izan ohi zuen gogoa ta beta, lane-tan ere, atsedendaldi gisa, izkirimiri edo ateraldi politen bat ezarteko. Dodgson eta beste askoren esamesak bizkarrera jaurtigitzen zituen, eta beharrik! Bestela eltze txiki gizona izan ba litz, amaitu giñan gu, ez genduen aren jarauntsi mainin ta ederrik iritxi izango.

Aren itzulpen batzuek, ezin gogo jolastiagoz egiñak izan. Esaterako: buru zorrotzetarrik irtendako ipuiñak=cuentos procedentes de alegre chaveta. Senar-ordea=vicemarido. Asto-polit au=este lindo borrico. Alaba bat, langille utsa=mera trabajadora. Antziñako joan-etorriak=idas y venidas de la antigüedad. Neure baztertxoak=mis posesioncitas. Kaleko aundikiren bat=algún magnate de la calle, eta abar. Beste nunbaiten Mundaka, ta Lesaka ta Andraka dala ta, Bizkaiko lenengotzako Jaun Zuria, Eskoziatik Laida alderaiño nola eldu ote zan ez dakigula dio, kexema-

rinen batean edota Jonas bezala, bale baten sabelean...

Euskal-pizkundeko garbimin aroan bizi izan zan bere gaztezaroon; eta zer arrigarria! Iru etsaiak izan ziran garbizaleak, edota garbimiñak joak. Azkue ta Arana, zer esanik ez. Eta Unamuno ere, ez zan batere mordoillozalea. Ta ez dezagun ahantz, Azkue berak idatzi zuen zer hau: Broussain ta Arana-Goiri zirela izberri sortzaillerik azkarrenak.

Izan zituen adiskide zintzuen artean ba dugu bat, txit ospatsua. Hona hemen Azkue-ren itzaldi baten pixketak, Aramaion 1916 urillaren 22'an egindakoa:

“Orain ogeta lau urte, egun auetan bezela sailpean nintzalarik, arlo onetxan antzekoa eman bear nion buruari. Meza berri bat genduen nere sorterrian; meza ori eman bear zuena Aramayoko seme eldu bat zan, etxe onetantxe jayoa, Vicente Goikoetxea. Apaiz egin berri hura, adiskide min-mina nuen eta, beraren deya gogo onez adituta, itzalditxo bat egiteko asmoz utzi nuen nere egoturia: Bilbo. Adiskide bizi ari jarraitu nion onek, ez ote nion adiskide illari jarraitu bear, beronen izana eriotzea baino iraunkorrago izatea guztion artean eskuratzeko? Belarrietan durundika degun Te Deum eder ori aski dala uste det nolako musikalaria zan jakiteko. Il zan arte askok uste izan zuten Lekeitio-ko seme zala, noski, an bera ta, batez ere, beraren aiderik urkoenak luzaro bizi izan diralako.

“Itsasaldeko uritxo maitagarri artan bizi zala (hau nik diot: Goikoetxea lenbiziko al-dian, bizi izan zan etxean bertan jaioa naiz ni) udako opor-egunetan beintzat, illuntzer- alkarrekin izaten ginan: Elizan lenengo, itsasgainean gero; eta egurats (aize) lodiz birrikak sendatzen genituen bitartean, alkar, igarri gabe bezela, egunean baiño egunean obekixeago ezagutu ta samurrago maitatzen bizi giñan”.

“Nere lendabiziko apaiz-urtean, laubost adiskidek Bilbon albaritaritxo bat sortu genduen, *La Abeja* izentzat zuena. Silverio Etxebarria, apaiz gartsua, Durangoko zaldun Antonio Arginzoniz, Abandoko seme Arana-Goiritar Sabin (sic), besteren bat eta nerau giñan Erle igarokor ari loretxo bat edo beste eskintzekoak. Albistari aretxen egapean erakutsi zituen lenbiziko aldiz Arana-Goirik Bizkaiko gertaera zar batzuek: Gordexola, Mungia, Padura ta Otzandioko esetsiak. Nik irakurgaitxo alai bat, Peru Matraka ta Pedranton izentzat zuena, asi nuen. Nere buruko ume ayek ementxe, zuen ar-

tean, Aramayon bizi izan ziran. Lantxo hura nere adiskide Vicentek irakurri zuenean, sudurpeko bizarra ezkerrez leguntzen zuen artean, itz auek esan zizkidan; “baina, mutil, au eztek Aramayo”.

“Urte batzuek geroago, bera apaiz zelarik, arako euskal-jaietan, d’Abbadie jakintsuaren izenean nik, nere erria alde bat zituta, onera ekarrarazi nituen jai eder ayetan...”

“Gure artu-emanetan, nere biotzean berarena sartzea aski izan ezta, zuenganako maitetasuna barruneragino sartu zidan. Arabako Batzarrak, lege-zarrekoak, Aramayon bildu ziran atzenaldiz”...

\*\*\*

“Ain zuzen ere, nik neronek lenengo meza eman nuen egunean, 1888'garren urteko San Migelez atera zan bera Lekeitiotik Valladolidako. Ogeita amalau urte zituen, apaiz-ikasteak asi zituenean. Atseginez alde batetik (beraren onerako baitzan), bestetik atsekabez ikusi zuen Lekeitio-ko uriak Goikoetxearen joakera. Bertako semea izan ba litz, etzuten maiteago izango”.

\*\*\*

“Bere irudiko bat, aurten, berarekin bateratsu il da Euskalerrian, nere ikaskide ta adiskide andia hura ere,... Bilboko Francisco Iturribarria. Biak izan dira euskaldun onak, biak erakusmeneko apaizak, biak antzelari (artista) andiak: batau musikara bezela, beste hura eresira (poesiara) kuturtu zan”.

Labur: Goikoetxea 1883'gn. urtean —29 urte zituela— eldu izan zan Lekeitiora. Adiskide biotzekoa iritxi zuen itsasportu hartan: Azkue gurea, artean apaizgei zelarik. Ez zuen Goikoetxeak orduan batere entzuterik. Esan bezala, gurea apaiz egin bezin laister, Vicente apaizgei biurtu zan. Andik iru urtera, 1891 iraillak 19, egin zan apaiz, Valladolid-en. Baiña Lekeitio kantatu zuen lenbiziko meza berria, eta Azkue-k egin zuen sermoia euskeraz, jakiña. Goikoetxea 1915 urtean ere egon zan itsasaldean, baiña ordurako txit gaiso. 1916 jorrailaren 9'gn, il zan Valladolid-en, Artxapezpiku jauregiaren atzealdean zegoen etxe zaldun dotorean, Goikoetxea euskal-musiku andia.

\*\*\*

Azkue-ren musika-etorria eta kera, ta aren estilistika, oraindion bear bezela ikaste-ko ditugu. Haren musikagintza osoa, haren literatura soilla, nobela, antzerti eta ipuñak barne. Maisu baiño ere artista ez ote zen idaroki nahi dugu. Erabat esan, gaztetan idatzi

zituena lanak elelderrekoago edo dira, halako jasa ta gatza baitute. Gero makaldu ta eratau egingo zan etorri ta eragin bizia, izkiralegepean eta itzen aberastasuna agertu beharrez, agian. Iztegiaren aurretiaz egin zituen alderdi ta errialde koxkor bakoitzeko izkera berezietan lantxo batzuek, bizi-dardarez beteak, batez ere Bizkai aldeko jendea mintzaraziaz. Horra hor dialektu lanen asikin bezala.

Gogoragarri dira baita haren zalantzak ere, izkira marrak eta abar erabiltzeko arauak eman nahirik. Goiko arrasta hori, arnas artzekoa, berberak asmatu zuen; orobat erlatibuaren lerrotxa edo ziria, aditz-jokoari deusala; azentu zirkunflexu delakoa, eta die-resis ere ä, ë, ö letren gainean, alemanerazko zeregiñez antzo. Azken aldian ere ez zegoen konforme x letra onartu zelako, galaitar-katalandarra, dio berak.

Dena dela, harako umore ona behar-reko zitzaion. Mingosturik ere, sarri askotan egon ohi baitzan. Euskaldun anaiengandiko erdeiñu, ziztada ta garrazkeriak entzunik; ta batez ere irakurririk. Baztertuta zegoen gizon batek nola eman zizkion bere erriari hainbat eta hainbat liburu andi? Asmo-kontua eta eskola-joera zela-ta, ahantzirik eta zokoraturik zegoela ikusi ohi genduen gure gazte denporan, iñortxo ez bait litzan. Anar-tean, haren lanik ez zuten anitzek ezagutzen —ezta gaur ere, Euskalerrri zabalean bertan—. Are gitxiago aztatu ta dendunean jarri. Hain azarmindurik bait zebiltzen euskaltzaleak izkera gaietazko sena ta ekurua atzendurik, garbimiñaren edo asmakuntza-leizaren ondarretaraiño murgildurik.

Gerra isilla ta zitala egin zitzaion Azkue-ri. Euskeraren izenean agian? Baiña azpitik, haren lanaz poliki baliatutzea ez zan obena, lehenago agertu dugunez.

Ta halaere Azkue isillik sarri askotan, ja-sankor eta mintzul, beazuna ausnartzen, sa-min-ondarrak dastatzen.

Orraitio, noizpait itzezin zuen, inguru-minguruketa gabe. Bilbon, 1918 urtean egin musika-itzaldi baten, euskeraz jarri dugun hauxe zion:

“Aspaldi hontan, urteak direla, eraso makurrak jasoten ditut, iñoiz zakarrak, abereko-erak ere bai; erdeiñu ta atzera-uzteak ere bai, nik neuk aintzat artu gabeak. Nire jokaera aintziñetik ere, politikan ez ibiltzea izan dut; ez berenez jardukizun naskagarria delako, nire egokitasunari ta nire jantziari ta bizi-moduari obeki dagozkien beste zeregin batzuek ditudalako baizik”... “Ni neu —dio geroago— ingeleza edota beste edozein late-

rritakoa ba nintz ere, izkuntzaganako ta sorterriaganako zuen maitetasun hori egiazkoa baldin ba litz, neri lagundu ezarren ere, ez nindukezue beintzat zirikatatu behar ez aizturtu”... eta beste lau errazoi geiago jartzen ditu. Eta bere arerio ta etsai ziran ikasleen irakaslea, argi ta garbi goretzi zuen, itzaldi horren azken orrialdean.

Euskerak duen mintzuraz, azentuaz, ardu- ra ta arreta andiz jokatu zuen beti. Hor ditugu haren agertzeko moduak, letrak beherago jarrita, azentu- idatzi bitartez eta abar, tonu ta atonu kontu jakingarri hoiak, gaurko euskaldun berri askok jakin ere ez dakizkitenak.

“Parnasorako bidean” bere aita zanaren gorralpenak egin ondorean haren oroipenak iñoiz erriren batek edo izango ote zuen gal-detzen zuen. Bai, Azkue jauna, zuen aitaren eta zuen jaioterriko jaiotetxeetan bakoitzak dituzue zeuen arlandu txuriak, zeuen izen ederrak idatzirik dituztela. Ez dira guztiak esker txarreko izan zuekin.

Eta horren sendagarritzat, aspaldi noiz entzungo genituen itzak, entzun berri ditugula esan beharko. Ta hain zuzen, garbimingiro meatz hortaz kutsagabetu nahirik edo, bigarren mordoillo-aroak bere uriolpean, ugol-deaz ondatu gaitzan baiño lehen.

“Zeruko Argia”-ren 76'gn. (1864) Luis Mitxelenak, “Azkue ta Euskal-itzegia” artikuluan esana berraldatuko dugu:

“ongi egin dan lanak, ordea, askotarako balio du, egilleak berak uste duen baiño geiagotarako. Orrexegatik edozein kastatuko jendeak Azkue-gana jo bear du egungo egunean ere, bere egarria berdintzeko. Orrera doaz euskal-idazleak itzez ornitzera, orrera izkuntzalariak euskal-itzten jatorria eta historia aztertzer. Or jakin dugu anitzek antziñako aberastasun gutxietsien berri, OR DITUGU GUZTIOK GURE IZKUNTZAREN BATASUNERAKO OIÑARRIAK...”  
Esan dut.


EUSEBIO ERKIAGA  
Donostia'n, 1964 Iraillak 7,  
Ayuntamiento zaharrean.

(Berbaluaren kulunkan, I. tomoa, 473-489 or.)



# 1965


## Joe Eiguren



Joe Eiguren Jordan Valleyen (Oregon) jaio zen 1915ean baina urte bakar bat zuela familia Euskal Herrira bueltatu zen, nora eta Lekeitiona. Hemen bizi izan zen 1934ra arte, berriro Estatu Batuetara bueltatu arte.

Karta horretan Lekeition bizitako pasadizo batzuk kontatzen ditu. Artzain, soldadu, alkate, interpretari, idazle... izan zen, baina, batez ere Ameriketako euskararen alde egin zuen lanarengatik da ezagun Joe. Kaleko euskara bakarrik ezagutu arren, euskara ikasteko metodoa asmatu zuen. 1963an hasi zen euskarazko klaseak ematen Boiseko Oinkari taldeko dantzariari, hasiera batean beste batzuen liburu eta gramatiken bitartez. Baina ingeles hitzunei irakasteko ez zirenez hain aproposak, 1966an metodo propioa asmatu zuen. Sasoi hartakoa da lehen Ingeles-euskara hiztegia. Urte batzuk beranduago, 1970eko hamarkada hasieran, hiztegitxo apal hori 30.000 hitzetik gorako hiztegia zen. Geroxeago historiako bi liburu idatzi zituen ingelesez, “Euskaldunen historia kronologikoa” eta “Euskaldunen partaidetza Espainiako Gerra Zibilean”. 1988an, “Kashpar: The saga of the Basque immigrants to North America” izeneko autobiografia idatzi zuen. 1996-3-8an hil zen.

Euskadiko Artxibo Historikoa, Ekin funtsa, 081-01



(...) Ezan deutzut neure barri ezango deutzut dala obeto ezagutu neizun eta emen, ba, diñentzut. Ni emen, Oregon'en jayo nintzan Joseba deunaren egunian, 1915.

Nire gurasoak eruan neben Euzkadira urte bete nebala. Lekeition azi nintzan. Aita zan Mendixakoa eta ama Ipistarrekoa. Lekeition jua nintzan ikaslekura. Maketo bat zan irakasle, Leonides Martinez de Torres!

Ikasitazun gitxi eta abesti asko irakatziten deuzkuen orduan.

Abesti bat zan:

Soldado soy de España

Estoy en el cuartel

Contento y orgulloso

De haber estado en él.

Eta nik baten —amaika urte nebazan— abestu nebzan:

Soldado soy de España

Estoy en el cuartel

Recogiendo las colillas

que tira el coronel

Ikasleak entzun eban eta maketaren (sic) baten semeak ezan eutzan ni nintzala eta irakasle orrek taket bat apurtu eban neure lepoan. Gogor jo neunduan eta bere eskuetatik alde al izan nebanean “joik eure ama” ezan eta “eskapa” neben ikasleku orretatik. Lau illebeta inguruan, amak be ezekiela ikaslekura jua barik egon nintzan. Amak jakin ebanian bialdu nabon Don Juan Eguzkiza jauna gana. Au zan irakasle ona eta abade eta “sermolari” ona. Baña amairu urtegaz alde neben orregandik eta lanean azi nintzan.

Arrainetako untzi (astillero) egiten egin neben lan emeretz urte nebazan arte. Mendi igoizale eta abar nintzan neure lagunakin. Emeretzi urtegaz etorri nintzan ona eta artzain egin nebazan sei urte inguru. Euzkadiko gudan idatzi neben “Delegación del País Vasco” uste dut Veracruz'en zala bat. Au zan '37eko udan uste dot. Bilbo galdu zan inguruan.

Orduan emengo mendietan itzal (triste) nintzan. Ezan eusten ezin neiela jua ara eta ostantzian lagunduteko. Baña, zergaz?

Ludiko gudan Amerika sartu zanian —'41an— emen gudari jua nintzan (voluntario) itxazotik baña ez nenduen artu Ingeles ez nekielako. Au zan '41teko Lotazila. Ille bi geruago deitu euzten leorretik gudari juateko eta berrogeta lau ille egin nebazan emen gudari (infanteria). Gudari negoala eskondu nintzan gaur neure emaztea danagaz. Europan egin neben aldi bat; Ingalterra, Prantzi, Belgika eta, Alemanian zartu giñean lez (linea Siegfried) zauritu nabon (nintzan?). Zortzi ille bete egin nebazan gaxotegian. Miracourt eta Marsellan euki neben luzaro eta Marsellatik eruan neben (nenduen) Napoles'era eta andik Amerika'ra.

Etxe'ra eldu nintzian ikusi neben lenengoz amaika illebeteko semea. Ni Prantzian nintzala jayo zan. Etxera etorri ta luzaro makal ibilli nintzan. Zaietz azur bi eta ezkumako birien (biriki

esan nahi du) erdi edo geiago kendu eusten Prantzian. Ori dalata ez nintzan luzaro be ondo ibilli baña astiro, sania (osatu) nintzan, Jaungoikuari eskerrak. Ez dot arreskero ezer izan.

Erri onetara etorri giñean emazte, seme eta irurok. Ementxe lana zuzendu neben eta arreskeroko guztian emen gara. Gudari negoala Ingeles apur bat ikasi neben eta ona zan neure lanerako. Arreskero beti deutzat apurka ikasten.

52ko ilbaltzean izan genduan beste seme bat eta orixe da gure zendia; geu zenar emazteak eta seme bi. Batak ditu ogei urte eta besteak amairu. Zarrena Idaho'ko “universidade'an” daroiaz iru urte ija eta gaztea geugaz etxean.

Erri onetan eta inguruan ez gara alan Euzkaldun askorik be. Amar edo amabost zendi edo bakarrik. Lau urte egin nintzuan erriko “konsejal” eta urte bi “alkate”.

Gudari jua nintzian galdu nebazan neure Euzkadiko “kontakt” guztiak eta ona etorri giñanian nik uste neben Euzkadi eta Euzkaldunak amaitu zirala betiko. Urte batzuetan ez neben ezerbe entzun ez jakin.

Egun baten “Korreora” jua nintzan beti lez eta geure “apartado'n” zegon Euzko-Deya bat beste Euzkaldun baten izenean. Iñok be ez eban Euzkaldun ori ezagututen. Eziñ neben zuzendu Euzko-Deya orren jauberik eta atzera Mejikora bialdu barik neuk irakurri neben. Olantxe jakin neben Euzkaldunak oraindiño bizi dirala eta iñoiz baño gogorrago deutzela auskan euren (geure) aberria azkatuten. Ogoñope'ri idatzi neutzan eta arengandik zueri.

Euzkadin nengoala, ondoen gomutauten nazian (') Euzko Abertzale Batza'ko buru edo naguzi zireanak dira: José Antonio Aguirre, Telesforo Monzón, Manuel Irujo eta Lauaxeta. Beste asko be bai baña orretzekin onduen.

Orixen da ba ija nire izate gustia, eta orain eskutzi luze on'egaz nekatu ez zaizen berau irakurruten, amaitu egin bear dot.

Zeuk erantzuten deutzazunean ezan ia zer deritzozun liburutxu orreri. Batzuk nai baldin badozuz bialduko deutzut daz “erregalu”.

Baita aditzagaitik be ia zer uste dozun. Aditza orregaz zer egin baneki uste dot zerbait egingo geunkeela “metodo'agaz”.

Gorantziak gustiari eta osazun onagaz izango al zarie Urte Barri onetan eta beste urte on askotan.

Beti Jel'pean, zeure adizkide

Eiguren'dar Joseba

dira bizi dirala eta inoiz gogorago deutzela auskan euren aberria azkatuten. Ogoñope'ri idatzi neutzan eta arengandik Euzkadin nengoala, ondoen gomutauten nazian Euzko Abertzale Batza'ko buru edo naguzi zireanak dira: José Antonio Aguirre, Telesforo Monzón, Manuel Irujo eta Lauaxeta. Beste asko be bai baña orretzekin onduen.

# 1966

## Lekittoko islia



Crocodilestone

Leketioko irla modan ipini da aspaldian baina, kontuz, gurtzeak bere arriskuak ditu. Bermeotarrei galdetu bestela, Gannet of Thionet seriekoek Gaztelugatxe Dragonstone bihurtu zutenetik atezuan dabilta. Gu hobeto gabilta, baina malekoiaren konponketak eta Atabaka elkartearen proselitismoak<sup>1</sup> erromesez bete du irla (ni neu ere bekatari oraintsu idatzi baitut irlaren gaineko liburutxo bat). Marea gaiztoek eta olatuek ere ezin dute fededun moderno horien kontra ezer egin. Aste Santuetan turista-hordek, Atilaren ejerzitoaren antzean, malekoiko alfonbra berdexka gris bihurtu dute. Akerrak, ala ahuntzak ziren?, ekarri beharko ditugu berriro turistak uxatzeko. Kontuz ibili behar dugu, arrakastak ere hil dezake eta!

Modan da bai irla, baina oraintsuko kontua da. Lehenago inork ez zuen irla zapaldu nahi. Serorak eta frantziskotarrak fedea eramanda, eta izurridunak eta soldaduak derri gorrean izan ziren irlako biztanle. Ahaztu barik Okabioren akerrak, ahuntzak edo dena delakoak. Baina XX. mendean desio objektu bihurtu zen. Kanpotik etorri beharra ere estimatzeko..., Manuel Buenok diosku Zita enperatrizak gustuko zuela, baita berak ere<sup>2</sup>. Ordukoa da aurkitu dudana erosteko lehen saiakera baina ez dakigu zer intentzioz. 1933a zen eta Pedro Errazquinek irla erosi nahi zuen<sup>3</sup>. Ez dugu ezagutzen beste ahaleginik harik eta Antonio Menchaca Careaga enpresaria agertu arte. Ekina zer zen ba! 1950. urtekoa da haren lehen ahalegina<sup>4</sup>.

